

GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA (GHGH)

IKASTETXEETAN INTEGRATZEKO GIDA





LAGUNTZAREKIN BATERA:



Guillermo Aguado.k koordinatua eta **Maria Dolores Morillas, Alicia de Blas, Encina Villanueva, Justina Sánchez, Tatiana San Millán, Joly Navarro** eta **Mar Palacios**.en parte hartzearekin.

Argitaratze hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia.ren (AECID) laguntza ekonomikorekin burutu da, "Gizarte eraldaketarako proposamen sozio-educatiboa: Genero eta giza-eskubide ikuspegitik Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza" hitzarmenaren barne. Bertan agertzen den edukia INTERED.en erantzunkizuna da eta ez du nahitaez isladatzen AECID.en iritzia.

1. SARRERA

1.1. Aurkezpena	4
1.2. Jarrera instituzionala	5
1.3. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza, globalizazio-garaiko hezkuntza-aukera bat.	7

2. ERREFERENTZIA ESPARRU TEORIKOA

2.1. Garapenerako hezkuntzaren kontzeptua	9
2.1.1. Definizioak	9
2.1.2. Eboluzioa	11
2.2 garapenerako eta herritartasun globalerako hezkuntzaren (GHGH) esparrua osatzen duten ikuspegiak	15
2.2.1 Generoaren eta baterako hezkuntzaren ikuspegia	15
2.2.2 Eskubideen ikuspegia	16
2.2.3 Gizarte- eta hezkuntzaikuspegia.	
Gizarte- eta hezkuntza-mugimendua pedagogia eraldatzaile batean	18
2.2.4 GHGH alor poliedriko bihurtzen duten beste ikuspegi batzuk.	21
2.3. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) HELBURUAK	22
2.4. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren (GHGH) gaitasunak	23
2.5. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren (GHGH) edukiak	25
2.6. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren (GHGH) metodologia	26
2.7. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH) ikastetxe batean ezartzea	30
2.7.1. GHGHren papera hezkuntza-sistema formalean	30
2.7.2. Prozesuak eta egiturak ikastetxeetan	31
2.7.3. Hezkuntza-komunitatearen ikerketa eta prestakuntza	32

3. IKUSPEGI GLOBAL BEZALA GHGH INTEGRATUTA DUEN IKASTETXE BATEKO OHITURA ONEN ADIERAZLEAK

3.1. Garapenerako Hezkuntzaren (GH) kontzeptua eta kontzeptu horri ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan (IHP) sartzea	33
3.2. Egiturak eta prozesuak ikastetxean	34
3.3. Curriculum Proiektuak eta Programazio Didaktikoak	36
3.4. Metodologiak. Proiektuak, jarduerak eta zereginak	37

4. ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

1.1. AURKEZPENA

InteRed Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea da, Institutio Teresatarrak sustatua, gizarte zibiletik gizarte-taldeen, herrien eta kulturen arteko Solidaritate eta Elkartrakerako Sarea bultzatzea du helburu. Bidegabekeriaren sortzailea den errealitate sozioekonomikoa eraldatu, eta txirotasunaren, desberdintasunen eta bazterketaren aurka borroka egin nahi du. Gizarte- eta hezkuntza-prozesuen bitartez lan egiten du, giza eskubideen eta generoaren ikuspegitik.

Garapenerako hezkuntzaren (hemendik aurrera GH) arlotik proposamen-sorta zabala garatzen du hezkuntzako hainbat testuingurutan (formalak, ez formalak eta informalak).

Gaur egun, beste ekintza batzuen artean, Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziarekin (AECID) egindako hitzarmen bat garatzen ari da hezkuntza-komunitateen ahalmenak indartzen laguntzeko. Ahalmen horiek herritartasuna sustatuko dute; herritartasun globala, kritikoa eta arduratsua, giza eskubideak osorik betetzeko asmoa daukan garapen gizatiarrarekin eta jasangarriarekin konprometitutakoa.

Horretarako, *Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza* (GHGH) bezala

ezagutzen dena lantzeko asmoa dauka *Hezkuntza Komunitateko* hainbat kolektiborekin: irakasleekin, ikasleekin, familiekin, administrazio eta zerbitzueta langileekin (AZP) eta instituzioetako beste laguntzaileekin. Ikastetxeetako kulturen, politiketan eta ohituretan eragina izango duen ikuspegi globala bihurtzea lortu nahi da horrela.

Agiri honek erreferentzia-esparru teoriko bat dakar, Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuen ikuspegi oso bezala GHGHren integrazio prozesuak eta ekintzak laguntzeko.

Helburu horretarako, agiri hau justifikatzeko, InteReden jarrera instituzionalari eta GHren arloan, une hauetan, adostasun akademikoaren zati diren agiriari lotu gatzazkio. Hauek dira:

- Espainiar Lankidetzara Garatzeko Hezkuntza Estrategia.¹
- Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde (GGKE) koordinadora garatzeko hezkuntza-estrategia.²
- Madrilgo erkidegoko GGKE-n Federazioko (FONGDCAM) GGKEk Garapenerako Hezkuntzarekiko eta Herritartasun Globalarekiko duten jarrera.³
- Garapenerako Hezkuntzaren III. kongresuko aktak.⁴

¹ Ortega, M.L. (2007): *Estrategia de Educación para el Desarrollo de la Cooperación Española*. Lankidetzara- eta Atzerri-Ministerioa. In: http://www.maec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Documents/DES_Educación para el Desarrollo.pdf

² CONGDE (2004): *Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible*. Espainiako GGKE-en Koordinakundea, Garapenerako Lankidetzara lan-taldea. In: http://autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf

³ FONGDCAM (2008): *El Cuadrado de la Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global*. En: <http://fongdcam.org/wp-content/uploads/2011/03/cuadrado.pdf>

⁴ Celorio, G. eta López, A. –biltzaileak- (2007): *Aktak. Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Kongresua. Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean*. Ed. Hegoa. In: http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdf2s/178/Aktak_Garapenerako_H_III_Kongresua.pdf?1309420611

1.2. JARRERA INSTITUZIONALA

InteReden Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza honela ulertzen dugu: *gizarte- eta hezkuntza-prozesu jarraitua da, herritartasun global kritikoa, arduratsua eta konprometitua* sustatzen dituen, *gizabanako- eta kolektibo-mailan; mundu bidezkoagoa, justuagoa, aniztasuna eta ingurumena* gehiago zainduko dituen, *eta pertsona guztioi libreki eta behar bezala* garatzeko aukera emango diguna eraikitzeko *tokiko errealitatearen eta errealitate orokorraren* eraldaketarekin konprometitua.

Definizio horren edukia zehatz-mehatz aztertzen badugu, hau aurkituko dugu:

“...prozesu...” Prozesuaren ideiak denboran zehar iraunkorra den lana dela adierazten du epe motzera, ertainera eta luzera. Prozesuaren ideiarekin hezkuntzako jardute askatzaileak ikaskuntzaren zati bezala duen garrantzia ere azpimarratzen da. Herritartasun globalerako hezkuntza-prozesuak parte-hartze eta barne-hartze praxia suposatzen du; praxi horretan, pertsonak bidean esperimintatu eta ulertu ahal izango dute zer den sustatu nahi dugun errealitatea eraldatzea. Zentzu horretan, Garapenerako Hezkuntzan prozesuak bilatzen den helburuaren aurrerapena izan behar du.

“...gizarte- eta hezkuntza-...” Garapenerako Hezkuntzako ekintzak hezkuntza formaleko,

ez formaleko eta informaleko espazioetan egiten direla ulertzen dugu, eta hezkuntza askatasun-praxi bat bezala ulertzen dugu, eta ez, dakienak ez dakienari ezagutzak igortze hutsa bezala. Garapenerako Hezkuntza errealitatearen irakurketa-ariketa kritikoa da, aztertzen dugun errealitatearekiko berarekiko gizarte-konpromisora garamatzana. Hezi nahi ditugun pertsona-moten, sustatzen ditugun prozesuen eta esperientzien, eta eraikitzen laguntzen dugun gizartearen artean continuum bat badela jotzen dugu. Errealitatearekiko konpromisora bideratutako errealitatearen irakurketa- eta azterketa-ariketa kritiko honetan egiten gara pertsona; Ignacio Ellacuriak zioen bezala, errealitatearen “ardura hartzen duten” eta “errealitatea beren gain hartzen duten” pertsonak.

“...herritartasun global kritikoa, arduratsua...” Herritartasuna terminoak eskubidedun subjektuei egiten die erreferentzia, analisi kritikorako eta eraikitzaileko irizpideak dituztenei; solidaritatea erantzunkidetasuna bezala ulertzen duten boteredun pertsonen. Vandana Shiva hau zioen *Manifiesto para una democracia de la tierra* liburuan⁵: “guztioi gara lurreko familiaren kide eta planetako bizitzak osatzen duen sare hauskorren bitartez elkarri lotuta gaude”. Guztioi planeta-kontzientzia izatea eskatzen du horrek, helburu kolektibo gisa bizitza eta bere iraunkortasuna sustatzea izango dituen. Herritartasun globalak pertsona guztiak ahaldundutzea eskatzen du, pertsona guztiak bere baitan hartzea, justizia benetan sustatzeko eta txirotasunaren aurkako borrokan parte-hartzeko.

⁵ Shiva, V. (2006): “*Manifiesto para una democracia de la tierra*”. Paidós Ibérica.

“...konprometitua... gizabanako- eta kolektibo-mailan, tokiko errealitatearen eta errealitate orokorrare eraldaketarekin...”

Konpromisora eta ekintzara bideratutako hezkuntza da. Vandana Shivak aipatutako bere liburuan dioen bezala: *“Elkar lotutako munduan bizi garenez tokiko aldaketek maila globalean dituzte eraginak, eta maila globaleko aldaketek ondorioak dituzte tokiko ekonomietan, kulturetan eta demokrazietan”*. Ezagutzen dugu txikiaren botere eraldatzailea. Tokiko errealitateetan badira lotsati iragartzen diren aldaketa sakonak. Egitura-aldaketak beharrezko direla ere badakigu, askatuko dituzten ekonomiak, demokraziak eta kulturak bizitza-ekonomia, -demokrazia eta -kultura izan daitezten. Arrazoi horregatik gure ekintzak bai subjektuetara, bai egituretara bideratuta daude. Gure ekintzek ezin diote politikoak izateari utzi benetan eraldatzaileak izan nahi badute.

“... mundu bidezkoagoa, justuagoa eta aniztasuna eta ingurumena gehiago zainduko dituen...” Beste mundu baten utopiak bultzatzen gaitu aurrerantz. Nagusi den eredu hegemonikoko eta patriarkaleko aldaketek gaur egungo

mundu-sistemaren ordezkoa eraiki nahi dute, gizarte justiziaren, zuzentasunaren (besteak beste, generoaren, kulturaren, sozioekonomiaren, adinaren eta gaitasun desberdineko pertsonen ikuspuntutik), ingurugiroarekiko errespetuaren eta aniztasunarekiko errespetuaren balioak biziko diren ordezeko mundua. Eta oraindik lortzeko asko geratzen bada ere, ildo horretan aurrera doazen proposamenak eta bizimoduak aurki ditzakegu gaur egun. Garapenerako hezkuntzak aukera bideragarri bat sustatzen du. Ez da ezinezko ametsa, partekatutako itxaropena gauzatzea baizik.

“...libreki eta behar bezala garatzeko pertsona guztioi aukera emango diguna.”

Solidaritatea ez da soilik ardura bat edo konpromiso saihestezin bat, Luis Arangurenen esanetan, bizitzeko aukera “apalki alaia” baizik. Garapenerako hezkuntzak gai izan behar du gure ekintzen hartzaile izango diren pertsonen bizitzan ilusioa eta aldaketak sortzeko, eta guztiok gure eskubideak askatasunean erabiltzeko aukera izan dezagun aukera-sorta handitzeko.



ARGAZKIA INTERED

1.3. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA, GLOBALIZAZIO-GARAIKO HEZKUNTZA-AUKERA BAT.

Globalizazioa familiakoa bihurtu zaigun terminoa da bai eguneroko kulturen, bai politikako, ekonomiako, soziologiako, etikako, ekologiako edo beste edozein arlotako estrategia espezifikoei. Mundua hurbileko bihurtu zaigu eta horretan lagundu dute informazioaren, komunikazioaren eta aeronautikaren arloko aurrerapen zientifikoek eta teknologikoek. Gizarte mugikortasuna ere garai hauek ezaugarria da. Batetik bestera bidaiatzeko dugu, batzuetan beste toki eta kultura batzuk ezagutzeko jakin-minagatik, eta beste batzuetan biziraupen-arazoei irtenbidea emateko. Fenomeno horren adibide oso garbia dira migrazioak.

Globalizazioak alde asko ditu. Horietako bat, merkatuen legeek diseinatuak, bidegabekeria larriak sortzen ari da. Globalizazio ekonomikoaren ondorioz talde ekonomiko eta finantzario transnazionalak hartzen dituzte funtsezko erabakiak; horren ondorioz demokrazia partizipatiboa murrizten da eta Ipar-Hego arteko etena handitzen da eguneroko bizitzako arlo guztietan.

Bada beste alde bat, giza ezaugarriak dituen, munduaren ikuspegi globalak agertarazten diguna: hainbat komunitate eta kultura munduan, bakoitza bere ezaugarriekin eta antolatze moduekin. Giza talde horiengana hurbiltzeki esker,

eta migrazioei esker, multikulturalitateaz eta interkulturalitatearen erronkaz jabetzen ari gara.

Kultura globalizazioa anibalentea da: komunikazioaren aldetik munduan agerpen azkarragoa eta handiagoa ahalbidetzen du baina, aldi berean, pertsonen eta kolektiboen anonimitasun handiagoa sortzen du. Zentzu-ekoizpenaren aldetik kulturen eta bizimoduaren estandarizazioa onartzen duen joera bat dago, eta bestalde, munduan hainbat kultura onartzen dituen beste bat. Nortasunaren baieztapen (ekonomikoa, kulturala, nazionala, erlijiozkoa...) sendoa duten taldeak ere aipatu behar dira; bazterketak eta indarkeria-forma berriak sortzeko bezain baieztapen sendoak dituztenak. Kulturaren globalizazioak herritartasuna erabiltzeko moduari eta subjektuen nortasunak eraikitzeari ere eragiten dio.

Globalizazioaren beste alde bat ekologikoa edo ingurumenarena da. Alde honek, besteak beste, baliabide-mota guztiak degradatzea eta/edo agortzea, bioaniztasuna galtzea, hirien zabaltzea eta horrek dakarren hondamendi naturalekiko zaurgarritasuna, krisi energetikoa eta klima-aldaketak dakartza. Baliabideen iraunkortasuna arazo larria da eta zalantzan jartzen du nagusi den garapen-eredua.

Globalizazioak oso ikusgai jartzen ditu hainbat fenomeno: bazterketa, munduko gosea, desberdintasunak, giza duintasunari irainak, guztion giza eskubideen aitorten urria, hainbat herrialdetako gatazka armatuak. Gertaera horiek (zein arrazoik eragiten ditu?), eta justiziarekiko konpromisora daraman kezka etikoa sortzen ditu. Garapenaren kontzeptua eta berekin dakarren ikuspuntua berrikusi beharra ere azaltzen da.

Horietako gaien batean zorrotasunez eta zintzotasunez sartzen garenean, informazioaren eta prestakuntzaren laguntzarekin, tokiko herritartasunak dakarren konpromisoari (oso atxikia hurbileko interesei eta beharrei) herritartasun globalak (non gizaki guztien beharrek eta aldarriek lekua duten) dakarren konpromiso arduratsua batzeko nahia sortzen zaigu gure kontzientzietan. Tokiko herritartasunaren eta herritartasun

globalaren artean erlazio dialektikoa dago, munduko edozein lekutan gertatzen denak beste leku batzuetan eragina duela kontuan izanik.

Hezkuntzari egindako beste erronka baten aurrean gaude: jadanik ez da nahikoa testuinguru soziokulturala hezkuntza eraldatzaitetik begiratzea, beharrezkoa da hezkuntza-prozesuei munduaren ikuspegi globala gehitzea, eta ikasleak prestatzea herritartasun globalak eguneroko bizitzan eskatzen dituen ardurarekin eta konpromisoarekin aritzeko. Bete betean sartzen ari gara Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH) une honetan zer den eta hezkuntza formalean nola ezarri behar den auzian. Garapenerako Gobernuak Kanpoko Erakundeekiko (aurrerantzean GGKE) interakzioak asko lagundu dezakete horretan.



ARGAZKIA INTERED

2.1. GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN KONTZEPTUA

2.1.1. Definizioak

Garapenerako Hezkuntzaren (GH) **kontzeptua** kontzeptu bizia eta dinamikoa da:

- **Bizia** XX. mendearen erdialdean sortu zelako Nazioarteko Lankidetzarako eta Bakerako Hezkuntzaren eskutik; denbora honetan heltzen joan da eta egunen batean, zerumuga utopikoan, izen horrekin desagertzea nahi dugu, mundu guztiak ulertzen duelako hezkuntza gero eta garapen gizatiarrago eta jasangarriago baterako dela, edo ez dela benetako hezkuntza.
- **Dinamikoa** errealitate sozial, ekonomiko eta politiko aldakorrari erantzutea lortzeko etengabeberraztertzen delako. Progresiboki aberastuz doa gizarte-mugimenduetatik jasotzen dituen ekarpenekin eta zalantzekin, bai abangoardia teorikoetatik bai bere praxitik.

Zentzu horretan, sarreran aurkeztu dugun InteReden jarrera hartu dugu esparru honetarako erreferentzia gisa. AECID en⁶, proposamenarekin bat datorren jarrerak honela definitzen du GH: *“herritartasun globala sustatzera bideratutako hezkuntza-prozesu jarraitua da; ezagutzen, jarreraren eta balioen bidez pobrezia- eta*

bazterketaren aurkako borrokan, eta garapen gizatiarraren eta jasangarriaren sustapenean konprometitutako solidaritate-kulturaren sortzaile izango den herritartasuna”.

Printzipio hori benetan ezartzeko, “ezagutza-arloen, eta gizabanakoaren, komunitateen eta munduaren arteko loturak ikastea errazten duen ikaskuntzaren metodologia holistikoa” oinarritzen da.

GGKEren adostasunak osatzen du definizio hori, eta Koordinakundeak⁷ jasota geratzen da GH horrela definitzean:

- *kontzientzia kritikoak sortzeko **prozesua**,*
- ***persona bakoitza** arduratsua eta aktiboa (engaiatua) egiteko,*
- *Iparrean nahiz Hegoaldean, **gizarte zibil berria eraikitze**ko, solidaritatearekin konpromisoa duena; horrela ulertzen den solidaritatea:*
- ***erantzunkidetasun** bezala –garapenean denok gaude sartuta, jadanik ez dago ez mugarik, ez distantzia geografikorik–,*
- *eta **parte-hartzailea**; erabaki politikoak, ekonomikoak eta sozialak hartzerakoan kontuan hartuko dira bere eskakizunak, beharrak, kezak eta analisiak.*

⁶ Ortega, M.L. (2007): *Estrategia de Educación para el Desarrollo de la Cooperación Española*. Lankidetzara- eta Atzerri-Ministerioa. In: http://www.mec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Documents/DES_Educación para el Desarrollo.pdf

⁷ CONGDE (2004): *Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible*. Espainiako GGKE-en Koordinakundeak, Garapenerako Lankidetzara lan-taldea. In: http://autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf

Hemen Madrilgo erkidegoko1 GGKE n Federazioak proposaturiko taula jasotzea ere egokia iruditzen zaigu, lagundu egiten

baitu Garapenerako Hezkuntza zer den eta zer ez den bereizten:

GARAPENERAKO HEZKUNTZA	
BADA	EZ DA
Prozesu etengabea	Eduki edo ekintza isolatua
Eraldatzailea eta kritikoa	Egonkortzailea
Iparrean nahiz Hegoan, bi norabideetan	Leku zehatzetarako, norabide bakarrekoa, Iparretik Hegoranzkoa
Dialektikoa	Finkoa
Konprometitua, politikoa eta ez neutrala	Kolaborazionista, neutrala
Hezkuntza-aukera zeharkakoa eta osokoa	Ikasgai bat baino
Gizarte osoarentzat	Hezkuntzan aditu direnentzat
Hezkuntza formal, ez formal eta informalerako	Hezkuntza formalerako soilik
Lehentasuna lankidetzaren planetan	Lankidetzaren planetako alderdi bat gehiago
Botere publikoek sustatu eta egunero eredu izan behar duten alderdia	Botere publikoek positiboki ikusten duten alderdia
Irakasleen eta sartuta dauden eragileen etengabeko prestakuntza behar dituen alderdia	Adituen esku uzten dugun alderdia
Barne-hartzailea, kulturantzuna eta askotarikoa	Ustezko garapen-eredu baten inposaketa
Proposamenak eta irtenbideak sortzeko	Arazoak aztertu eta sentsibilizatzeko soilik
Gatazkak bitarteko baketsuen bidez konpontzen ikastea	Gizarte-biziraupena ikastea
“Beste mundu bat posible dela” aintzakotzat hartzen duen aukera eta utopiaren hezkuntza-balioaren alde apustu egiten duena	Gizarte-gatazkakortasunari eusteko aukera

⁸ FONGDCAM (2008): *El Cuadrado de la Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global*. In: <http://fongdcam.org/wp-content/uploads/2011/03/cuadrado.pdf>

2.1.2. Eboluzioa

Adierazi dugun moduan, Garapenerako Hezkuntza (GH) asko heldu da sortu zenetik gaur egun arte, “bost belaunaldi” bezala ezagutzen diren zehar. Garapena (eta gaizki deituriko “azpigarapena”) denboran zehar ulertzeko modu desberdinen menpe egon da bere eboluzioa; horrek une bakoitzean ekintza-estrategia, balio eta jarrera batzuk, eta prozedura bereziak eta desberdinak eman ditu. Ez dago erabateko uniformetasunik belaunaldien kopuruari eta beren izenei buruz, baina bai kontzeptu orokorreki buruz.

Belaunaldi berri bakoitzak aurrekoa zalantzan jartzen du kontuan izan ez ziren ikuspegiak eta ikuspuntuak gehituta. Horrek, kasu batzuetan, zaharkituta geratzen diren planteamenduak eraitea suposatzen du; beste batzuetan, indarrean jarraitzen duten elementuak mantentzea aurrekoa osatzen duten alde berriak gehituta. Ereduak elkarrekin bizi dira denboran zehar, egungo bosgarren belaunaldia apurka-apurka finkatuz eta lehenengoa progresiboki baztertuz; baina hala ere, lankidetzako proiektu askoren azterketa sakonean (definitzen dituen azken belaunaldiko hizkuntzaz haratago) aurreko belaunaldietakoak diren ekintzek dautza.

a) Lehenengo belaunaldia: **karitatezko, laguntzazko ikuspegia.**

- XX. mendearen erdialdera sortu zen (40./50. hamarkada). Asistentzialismoa edo ongintza dira bere erreferentzia. “Azpigarapena” egoera “berezien” (hondamendien, guden, goseteen...) ondorioz sortutako “atzerapena” bezala ulertzen da, gizarte baten ibilbide “normala” geldiarazten duena. Bere ideia giltzarria

“arazoak konpontzea” zen salbatzaileen eta salbatuen ikuspegi paternalistatik.

- *Belaunaldi honetako GH* larrialdi-egoeratan funtsak biltzeko kanpainak sustatzera mugatzen zen. Aktoreen artean “ongile eta biktima” arteko erlazioa ezartzen da beraz.

b) Bigarren belaunaldia: **garapenaren aldekoa**

- 60. hamarkadan sortu zen. *Desarrollismoa da bere erreferentzia*, zientziaren, teknikaren eta ekonomiaren aurreratze jarraituan oinarritzen den “aurrerapen mugagabea” oinarri duena. Garapenaren bidea industrializazioa da, eta herrialde guztiek hazkunde ekonomikoa eta ongizatea izateko beharrezko duten industria sortzeko teknologia esportatzean datza “Lehenengo munduak” “Hirugarren munduarekin” duen lankidetzako-mota.
- *Belaunaldi honetako GH*ren ezaugarri nagusia herri “azpigaratutako” atzerapenen, hondamendien, goseteen eta izurriteen aurrean sentsibilizatzeko da, lankidetzako-proiektuetarako funtsak biltzeko horrela.

“Karitatea” erregutu eta mendealdeko imaginarioa mantentzen da; imaginario horren ustez “txiroak” garatzea galarazten dien kultura atzeratu batean daude eta, norabide bakarrean ezagutzak esportatuz, egoera horretatik atera behar dira. “Salbatzaile eta salbatu” arteko erlazioa ezartzen da horrela.

c) Hirugarren belaunaldia: **kritikoa eta solidarioa**

- 70. hamarkadan sortu zen. *Dependentziaren teoria da bere erreferentzia*; hor, “garapenaren/azpigarapenaren” ulermena ikuspuntu kritiko batetik egiten da, herrialde batzuen txirotzaren lepotik beste batzuk

aberastea dakarren sistema bidegabeari mozorroa kentzen dion ikuspuntua.

- Oraindik garapenaren beste alde batzuei ez zaie kritikarik egiten; hala nola, ekoizpen masiboari, industriaren biderkatzeari, populazioa hiri handietan pilatzeari, landa-bizitza eta maila txikiko ekoizpena, eta artisautza, albo batera uzteari.

Horrela, hondamendi naturaletan, sozialetan, politikoetan eta ekonomikoetan laguntzeko transferentzia ekonomikoetan eta teknikoetan oinarritzen da lankidetzak. *Laguntzaren* ideia albo batera uzten da eta *lankidetzak solidarioko* estrategiak hartzen dira arazo horiek jasaten dituzten komunitateekin.

- Sentsibilizazioari salaketa gehitzea izan zen *belaunaldi honetako GHren ezaugarria*. Zer gertatzen ari da galderari *zergatik* gehitzen zaio. Laguntza jasotzen dutenak bere garapenaren proiektuetan parte hartzen duten subjektuak eta komunitateak (“zapalduak”) direnaren ideia nabarmentzen da, baina bigarren maila batean, oraindik ere Mendebaldeak (“zapaltzaileak”) lankidetzan duen protagonismoa mantentzen baita.

Aldi honetan hezkuntza formalaren funtzio eraldatzailea eta Iparraldeko gizarte zibilarren prestakuntzaren garrantzia azpimarratu ziren.

d) Laugarren belaunaldia: garapen gizatiarrerako eta jasangarriarako

- 80. hamarkadaren erdialdera sortu zen. *Giza garapenaren* teoriari *erreferentzia* eginez hasi zen eta *Garapen jasangarriarenarekin* osatu zen (eutsigarri ere deitzen zaio). Baliabide naturalak agortzen dituen eta degradatutako munduan bizi beharko duten etorkizuneko belaunaldiekin

solidarioa ez den industria-eredua bideraezina dela salatzen da. Pertsonen eta kulturen garrantzia azpimarratzen da eta adierazle makroekonomikoen sinesgarritasuna murriztu. Arreta jartzen zaio talderik zaugarrienen marjinazioari eta pertsona guztien giza eskubideak bizi diren tokian aitortzeari. Baita kultura aniztasunari ere; irizpideak, gustuak eta ohiturak uniforme bihurtzen dituen pentsamendu bakarraren inposaketak mehatxatua baitago. Hala, lankidetzak bi norabidetan ulertzen hasten da: Iparr-Hego eta Hego-Ipar. Baztertzen duen *globalizazio ekonomikoaren alternatiba bezala, globalizazio solidarioa* bultzatzen da.

- *Belaunaldi honetako GHk* sentsibilizazioari eta salaketari industria-eredua, eta bere ondorio zitalak, zalantzan jartzea batzen dizkio. Gai berriak gehitu zituen: kultura-aniztasuna, generoaren gaia, bakea, giza eskubideak, migrazioak, ingurumena, gatazka armatuak... Hezkuntza prozesu etengabea bezala ulertzen da, aldaketarako presio sozialari lehentasuna emanda Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak ulertzen laguntzen duena, solidaritatearekin eta justizia sozialarekin erlazionatutako balioak eta jarrerak sustatzen dituen, eta garapen gizatiarra eta jasangarria lortzeko baliabideak ematen dituen. Uraren, osasunaren eta hezkuntzaren pribatizazioa bezalako gaiak kritikoki azaltzen ditu, eta arazoen eta irtenbideen dimentsio politikoa nabarmentzen du, nahi diren aldaketak lortzeko militantziaren eta antolakuntzaren garrantzia azpimarratuta.

e) Bosgarren belaunaldia: herriartasun globalerako

- XX. mendeko azken hamarkadan sortu zen. *Herriartasun unibertsalaren* teoria da bere *erreferentzia*. Egiaztapen honetatik abiatzen da: garapen-krisia ez da gutxiago garatutako herrialdeen arazoa; globala da eta planeta osoari



ARGAZKIA INTERED

eragiten dio. Populazioaren hiru laurden txirotasunean egoteaz gain, mundu industrializatuko “ongizateko estatuaren” krisiari aurre egin behar diogu. Globalizazio-prozesu bizkor baten aurrean sistemak bere ahuleziak dituela egiaztatzen da, eta besteak beste, seinale hauekin nabarmentzen da: ingurumenaren krisia, ekonomiarena eta giza eskubideena (politikoak, sozialak, emakumeenak, kulturalak, ekonomikoak, ingurumenekoak...). Merkatuaren garapena globalizazio-prozesuaren helburu bihurtu da bere baitan eta erabakiak hartzean parte hartzeko gaitasuna kendu dio munduko populazioaren gehiengoari.

• *Belaunaldi honetako GH Herritartasun globalerako* hezkuntza bihurtu da; aldi berean garatzen ditu bere gizabanako-eta gizarte-dimentsioa, hau da, pertsonarentzat bizitza zoriontsua bilatzen saiatzen da eta, aldi berean,

bizimodu sozial, bidezko, parte-hartzaile eta demokratikoa sendotzen laguntzen du. Ahalegina, bai lparrean eta bai Hegoan, lehenengo eta bigarren belaunaldiko eskubideen alde borrokatuko duten pertsona herritarrak heztea da, pertsona horiek, aldi berean, desberdintasuna onartu eta bere alde borrokatuko dute, elkar aberasteko eta aurrerabiderako faktorea delako. Desberdintasunaren gizarteak sortzen dituen erronkei erantzuteko gai izango diren herritar aktiboak heztea da.

Herritar-eredu honek pertsonari modu integratzailean begiratuak dioten hezkuntza-ekintzak behar ditu –adimena, arrazoia, sentimenduak, borondatea, espiritualtasuna–, eta norberaren eraikuntza besteeikiko elkarrekin egiten denaren uste osotik abiatzen da. Pedagogia arloko zereginak hau eskatzen du:

<i>GHGHren dimentsioak</i> ⁹	<i>Dimentsio horiek eskatzen dituzten gaitasunak</i>
<i>Gizarte konplexu batean izaten ikastea. (dimentsio pertsonala)</i>	• Norberaren nortasuna(k) eraikitzeko gaitasuna, pertsona bakoitzaren eta pertsona guztien duintasuna eta balioa aitortuz. • Giza eskubideen ikuspegitik erabaki arduratsuak hartzeko gaitasuna. • Sentimenduen maila subjektiboa gainditzeko eta, modu partekatuan eta dialogikoan, xede unibertsala duten printzipio etikoak eraikitzeko gaitasuna.
<i>Gatazkak dauden gizarte batean elkarrekin bizitzen ikasi (gizarte dimentsioa)</i>	• Aniztasuna aitortzen eta balioesten lagunduko duten baldintzak sortzeko gaitasuna. • Indarkeriazkoak ez diren jarrerai eutsiko dien bakearen, lankidetzaren eta elkarriketaren kultura sortzeko gaitasuna. • Arazoak eta gatazkak demokratikoki kudeatzeko gaitasuna.
<i>Gizarte planetario batean ezagutzen ikasi (dimentsio sistemikoa)</i>	• Gure inguruko arazo eta gatazka etikoak bere konplexutasun osoan aitortzeko eta horiekin sensibilizatzeko gaitasuna. • Jakintza-iturriak kritikoki eta sistematikoki kontrastatzeko gaitasuna. • Gertaerak erlazionatzeko gaitasuna eta arazo berari heltzeko hainbat bide arakatzeko gaitasuna.
<i>Aldatzen ari den gizarte batean jarduteko ikasi (denbora-espazio dimentsioa)</i>	• Herritar aktibo eta etikoki arduratsu bezala, kritikoki eta sormenez parte hartzeko gaitasuna. • Ekintza zehatzetan motibazioz eta baikortasunez konprometitzeko gaitasuna. • Gizateriaren ondare soziala, kulturala eta naturala babesteko eta hobetzeko gaitasuna, solidaritate sinkronikotik eta diakronikotik.

⁹Dimentsio hauek "Los pilares de la Educación para el s. XXI"-an biltzen dituzte proposamenak, UNESCOren txostenean in: Delors, J. –koord- (1996): La Educación encierra un tesoro. Ed. Santillana-UNESCO. Laburpena hemen: http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF

2.2. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) ESPARRUA OSATZEN DUTEN IKUSPEGIAK

2.2.1 Generoaren eta baterako hezkuntzaren ikuspegia¹⁰

• *Genero-ikuspegia*

Generotzat hartzen bada gizarte batek gizona eta emakumea zer diren definitzeko daukan modua (beraz, sexuarekiko desberdina —gertaera biologikoa—), generoa sozialki eta kulturalki eraikitzen dela ulertzen da; hortaz, denboran zehar eta kultura batetik bestera alda daiteke, eta aldagarria izan daiteke.

Ikuspuntu honetan, genero-begirada edo -ikuspegia da errealtatean dauden gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak kontuan hartzen dituen. Hau da, beren arazoak eta zailtasunak konpontzeko, pertsonen bizimoduarengan eta aukerengan generoak eragin dezakeen modua ikusarazten du.

Ikuspegiak hainbat ikuspuntu daudela jabetzen laguntzen du; baita boteretzearen bidez, gaitasunak, genero-autoestimua, autonomia eta beren bizitzengan erabakitzeko ahalmena (arlo publikoan eta pribatuan, eta gizartean, politikan, ekonomian eta kulturaren parte hartzeko dauden espazio guztietan) hazteko mekanismoak ematen ere.

• *Baterako hezkuntza*

Baterako hezkuntza deritzo pertsona guztiei balioak, portaerak, arauak eta itxaropenak oinarri dituen sisteman heztearen proposatzen duen hezkuntza-ereduari (sexuaren arabera hierarkiarik ez duena) eta, era berean, pertsona bakoitzaren nolakotasunak eta desberdintasunak balioetsiz hezten duenari; hori guztia gizon eta emakumeak batera bizitzeko, harremanetan izateko eta bien arteko errespetua, lankidetzeta eta elkartasuna sustatzeko beharra abiapuntu hartuta.

Horretarako, emakumeen hezkuntzarako eskubidea onartzea izan zen lehenengo eskakizun handia; eskubide hori askotan jarri zen zalantzan XIX. mendean, bai onartzerakoan bai ezartzerakoan. Hezkuntzara sartzearekin eskola banandua ezarri zen, emakumeentzat eta gizonentzat helburu eta eduki oso desberdinak zituen: Espainian XX. mendearen zati handia iraun zuen eta amaiera aldera soilik orokortu zen hezkuntza mistoa. Han espazioak partekatu ziren, baina lehendik gizona zela bezala hartzen ziren helburuek eta edukiek lehentasuna zuten. Gainera, estereotipo eta muga asko mantendu ziren neska eta mutilentzat. Gaur egun ere, baterako hezkuntzara iristeko asko falta da oraindik. Tradizionalki

¹⁰ InteRed-en GHGHren jarreratik eta E. Villanuevaren “Los pinceles de Artemisa” (InteRed, 2011) argitalpenetik hartua.

emakumeenak eta gizonezkoenak izan diren jakintzak eta trebetasunak onartuko dituen eskola lortu nahi da, emakumeen ekarpenak bistaratuz ikasi behar dena birzehaztuko duen eskola, eta desberdintasunak era ekitatiboan hartuta aniztasuna aberastasun-elementutzat joko duen eskola.

Guk baterako hezkuntza terminoaren alde egin dugu, eta ez Berdintasunerako hezkuntza terminoaren alde, aukeraberdintasuna eta estereotipoak alde batera uztea lortu nahi izatearen ondorioz arriskua baitago bigarren aukera horretan aniztasuna baliogabetzeko eta beraz, pertsonak “neutro” egiteko. Adierazi dugun bezala, norberaren nortasuna eraikitzeko berdintasun-elementuen kontzientzia hartzea bezain garrantzitsua da (adibidez, ondasun fisikoak eta sozialak lortzeko aukerei, edo erabakiak hartzeari, edo berdinen taldea kontuan hartuko dituen ezaugarri partekatuei dagokiena), desberdintasun-elementuen kontzientzia hartzea (besteak beste, indibidualizazioari, aukeratzeko askatasunari edo norberaren gorputza aurkitzeari dagokiona).

Genero-ikuspegia ezartzerakoan, hezkuntzaren historiaren azterketa teorikoaz eta baterako hezkuntzaren proposamenaz gain, funtsezkoa da norberaren praktikak eta hezkuntza-egiturak berrikustea, batez ere, eskoletan genero-desberdintasuna nola ugaltzen denaren eta nola irakasten denaren azterketaren bitartez. Horretarako zehaztasun handiz aztertu behar dira curriculum esplizitua eta ezkutukoa. Curriculum esplizitua ikasturte batean irakatsitako eta ikasitako ezagutzamultzoa da; araututa dago, aginduzkoa da eta planifikatu egiten da. Ezkutuko curriculum hezkuntza-prozesuan parte

hartzen dutenek oharkabea ikasten duten guztia da; ez dira ohartzen ez jakintzaren transmisioaz, ezta haren eraginez ere; ez da ez planifikatua ez arautua izaten. Biek analisirako funtsezko esparru izan behar dute, baina esanguratsuen bigarrena dela jabetuta; batetik, ikusten zaila delako eta, bestetik, ikastetxeko egunerokotasunean izaten diren arau, jarrera, itxaropen, sinesmen eta jarduteek ikasleengan duten eraginagatik.

2.2.2 Eskubideen ikuspegia.¹¹

Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegiak (GEOI) garapenaren kontzeptua Giza Eskubideak (GE) guztiz betetzearekin lotzen du —eskubideen 3. belaunaldia edo solidaritatearen eskubideak deitzen direnak barne—, arlo guztietan eta pertsona guztientzat. Horrela, “Giza eskubideen sistema” bat eratu da, Deklarazio unibertsalaz gain, gerora garatu diren printzipio, balore eta arauak bere baitan dituen.

Garapenerako Hezkuntzan (GH), giza eskubideek landu beharreko eduki zehatza izateari utzi eta bosgarren belaunaldiaren oinarritzko elementua izatera pasatzen dira: GHGH. Edukiak ez dira batez ere behar ekonomikoei eta sozialei buruzkoak (norbereak edo komunitate txirotuenak), maila berean hartzen dituzte bere baitan askatasun zibilak eta politikoak (pertsona eta talde guztienak). Horrela, hezkuntzatik indarra eta zilegitasuna gehitzen zaizkio giza garapenaren aldeko borrokari, bere eskubideen defentsan beste pertsona batengandik laguntza jasotzeko ahalmena duela azaltzen baitu; gainerakoek trabarik ez diotela jarriko bermatzea edo laguntza-

¹¹ Basat en el document d'Alicia de Blas (2011) “La Educación para el Desarrollo i el Enfoque Basado en Derechos Humanos”. Interred.

eta errazte-ekintza positiboak exijitzea izan daiteke laguntza hori.

Giza eskubideek ekiteko betebeharrak saihestezina exijitzen diete garapena erraztu edo sendotu dezaketenei. Ez da borondate edo eskuzabaltasun kontua, justizia eta ardurarena baizik. Eskubide zehatzak gauzatzen lagundu behar dutenen neurriak, estrategiak eta betebeharrak zaintzeaz gain, garapenaren arlo gabeziengatik nork arduratu behar duen adierazten du. Horrela, garapen-lana asistentziazkoa izatetik, eta beharren ikuspuntuan oinarritua egotetik, eraldatzaileagoa izatera eta giza duintasunaren aitortzan eta justiziaren bilaketan oinarritua egotera igaro da. GHak “betebeharrak dituztenen” gaitasunak (beren eginkizunak bete ahal ditzaten) eta “eskubideak dituztenen” gaitasunak (dagozkien eskubideak eskatzeko) garatzen laguntzen du.

Giza eskubideek interes orokorraren alde ekindako politiketatik ere babesten dituzte gizabanakoak eta taldeak Unibertsaltasunaren eta diskriminazioezaren printzipioak baliatuta; izan ere, gizarteko talderik zaurgarrienak eta boteretik gutxiena dutenak izan ohi dira, hasiera batean guztiei on egiten dieten politiken ondorioz kaltetuena. Ikuspuntu honekin kolektibo zaurgarrienen sustapena, eta Estatuak guztion giza eskubideak aitortzeko eta praktikan jartzeko duen ardura berezia, nabarmendu nahi dira. Jendea ahalduntzea dakar, beren erabakiak har ditzaten, eta beren aukerak eta zerbitzuak izateko eskubideak eska ditzaten.

Giza eskubideentzako Nazio Batuen goi komisarioak onartzen duen moduan, txirotasuna benetako boteretik ez izatearen eta bazterketaren ondorio da. Txirotasuna ez da soilik ondasun materialen eta lanpostuaren gisako aukeren eza, baita

ondasun fisikoen eta sozialen eza ere; besteak beste, osasuna, segurtasun fisikoa, beldurraren eta bortxakeriaren gabezia, nortasun kulturala, eragin politikoa erabiltzeko gaitasuna, eta begirunez eta duintasunez bizitzeko gaitasuna. Eskubideak urratzea txirotasunaren arrazoi eta ondorio dira.

Subjektu publikoek eta pribatuak, eta banakoak eta kolektiboak, eskubide horiek betetzerakoan dituzten rola identifikatzea da Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegiaren (GEOI) ekarpen garrantzitsuetako bat. Eskubideen titularrak eta betebeharren titularrak bereizten dira:

- **Eskubideen titularrak:** ikusi dugun bezala, gizakiak, bakarka eta taldeka, beharrak dituzten subjektutzat hartzeari utzi eta eskubideak dituzten subjektutzat hartzen dira; era berean, botere politiko, juridiko eta soziala dituzte Estatuari eta gizarteari horiek erabiltzeko eta gozatzeko beharrezko diren portaerak eta ekintzak exijitzeko.

- **Betebeharren titularrak:** giza eskubideak osorik betetzea bultzatzeko, beren esku dagoen guztia egiteko ardura duen pertsona oro da. Horren barruan daude errespetatzea, babestea, sustatzea eta eraginkor bihurtzea. Bi multzotan banatzen dira izaeraren arabera:

- Eginkizunen titularrak: Estatuak bere herritarren giza eskubideen benetako eskubideei dagokionez eginkizun politikoan, moralen eta juridikoen lehentasunezko subjektuak dira.

- Arduren titularrak: besteak beste, gizabanakoak, komunitatea, gizarte-erakundeak, eragile ekonomikoak eta komunikabideak; orokorrean estatuarena ez den edozein eragile, horien ekintzek eragin zuzena baitute pertsonen eskubideengan.

Herritartasunaren eraikuntzarekin eta gaitasunen sendotzearekin zerikusia dauka ikuspegi honen beste gako batek; izan ere, eskubideak urratzearen arrazoi nagusia betebeharren titularrek beren ardurak eta eginkizunak betetzeko gaitasun-gabezia eta eskubideen titularrek exijitzeko gaitasun-gabezia dira. GHk garatu egiten ditu gaitasun horiek arduraren, motibazioaren, konpromisoaren, lidergoaren, aginpidearen, baliabideak hartzearen eta kontrolatzearen, komunikazioaren, erabakiak hartzearen eta ikastearen bidez.

GEOI GHra gehitzeak garapena hazkunde ekonomikoarekin eta materialarekin parekatzen duten ikuspegi asistentzialistak edo neoliberalak albo batera uztea dakar; baita hezkuntzaren ustezko neutraltasuna edo inpartzialtasuna ere. Gizabanakoen, gizartearen eta herri osoen eskubideak urratuz talde edo gizarte batzuei onura egiten dien garapen-eredua zorrotasunez zalantzan jartzeko betebeharra ezartzean datza. Ikuspegi hori hezkuntzara gehitzeak behartzen du kolektibo zaurgarrienen alde jartzera, eskubideen titularren ahalduntzea bultzatzera eta eginkizunen titularren ardurak zehaztera. Horiei, publikoak nahiz pribatuak izan, gure ekintza sarritan deserosoa, edo argi eta garbi aurrez aurrekoa, irudituko zaie.

2.2.3 Gizarte- eta hezkuntza-ikuspegia. Gizarte- eta hezkuntza-mugimendua pedagogia eraldatzaile batean¹²

Gizartea, hezkuntza eta kulturak eraldatzeko pertsonen, taldeen eta erakundearen

gaitasunean enfasia jartzen duen begirada gisa ulertzen dugu gizarte- eta hezkuntza-ikuspegia. Pertsonen humanizazioarekin, guztion ona etengabe aurkitzearekin eta herritartasun arduratsua gauzatzearekin konpromisoa hartuta duen jardute politiko bat ezartzeko prozedura da; baita barnean hartzearen eta zuzentasunaren aldeko ekintza ausarta ere.

Ilido berean, gizarte- eta hezkuntza-mugimenduak mugiarazi egiten ditu helburu eta interes berdinak dituzten pertsonak, taldeak eta erakundeak ongizate kolektiboaren alde beren indarrak batzeko. Guztiontzat hezkuntza osoa eta kalitatezkoa behar duen ongizatea; gizarte-antolakuntza gizatiarra eta justua eskatzen dituen; kultura solidarioak eta elkarrekiko dependienteak behar dituen; esperientzia kontzientek behar dituen. Gizarte- eta hezkuntza-mugimenduak logika indibidualista hautsi, eta gizarteko, hezkuntzako eta kultura-arteko sistemen demokratizatzearekin eta gizatartzearekin konpromisoa hartutako aukerak, sentimenduak eta ekintzak bultzatzen ditu.

Beraz, eraldatzailea izan nahi duen pedagogiak analisirako, hausnarketarako eta ekintzarako hiru arlo izan behar ditu kontuan: tokiko eta mundu mailako testuingurua eta beren ikuspuntuak; testuinguru horietan sortzen diren hezkuntza arloko erronkak; errealitatearen eraldaketa azpimarratzen duten joera pedagogikoak ezartzea, irizpideak eta zentzu etikoa erabilita. Hezkuntzako jarduteak ematera deituriko pedagogia da: errealitatea kritikoki begiraraziko duten jarduteak; testuinguruak, egiturak eta prozesuak eraldatzeko aukerak proposatuko dituztenak eta hezkuntza-komunitate osoa nahasiko dutenak. Proposamen

¹² Institutio Teresatarren Kultura Kontseiluarekin bat

parte-hartzaileak, irekiak eta malguak; beste erakunde batzuekin sinergiak bilatzen dituztenak eta, desberdintasuna, txirotasuna eta bazterketa ezaugarri iraunkorrak diren mundu batean, pertsona bakoitzaren duintasunari, giza eskubideei, bizi-kalitateari, eta justizia eta zuzentasuna ezartzeari lehentasuna ematen diotenak.

Horretarako, zera proposatzen du ikuspegi honek hezkuntzaren lehentasunezko helburu gisa: bere duintasunaren eta gizarte-arduraren jakitun diren *nortasun pertsonalak* eraikitzea, errealitatea eraldatzeko konpromisoa duten *subjektu sozialak* sortzea, eta tokian nahiz mundu mailan *herritartasun arduratsua* indartzea.


Agiri honetan aipatzen ditugun hainbat pedagogia eraldatzailetan gizarte- eta hezkuntza-ikuspegia duten ikastetxeen hezkuntza-proiektu batek zein ezaugarri komunizan behar dituen aurki dezakegu:

- **Historikoki** *hemen eta orain* kokatutako hezkuntza-prozesuak ulertzea eta ikaskuntza beti testuinguruan kokatua dagoen prozesua dela onartzea.

- **Eskolako** ikasketak gizarteko beste testuinguru batzuetako ikasketekin antolatzea, eta hezkuntza formala, ez formala eta informala sustatzen dituzten erakundeen eta esparruen arteko erlazioak sustatzea.

- **Teoria** eta praktika sistematikoki lantzea. Esperientziak diosku hobeto ikasten dugula jarduerak egiten ditugunean, ikertzen, pentsatzen, geure buruari galdetzen eta irtenbideak bilatzen ditugunean; baita gure proposamenak onartzen eta balioesten direnean, gure bilaketak besteekin alderatzen ditugunean, eta modu kolektiboan taldean hizketan aritzeko eta lan egiteko gai garenean ere.

- **Subjektu** autonomoen, trebeen, arduratsuen, solidarioen, arlo



pertsonalean eta kolektiboan eskubidedun subjektuak izateko gai direnen, eta gizartea gizatiarragoa eta justuagoa izan dadin aldatzen laguntzeko gai direnen eraikitze-prozesuak sustatzea.

- **Metodologia** aktiboak, parte-hartzaileak, pertsonalizatzaileak, holistikoak, kooperatiboak, eta hezkuntzaren dimentsio kognitiboa, afektiboa, soziala, kulturala, ludikoa, politikoa eta garrantzizkoa antolatuko dituztenak erabiltzea.

- **Norberari** buruz, besteei buruz, herrien nortasunari buruz, bizitzari eta munduari buruz, eta itxaropenez eraikitako etorkizunari buruz ikaskuntza garrantzitsuak sustatzea. Ikaskuntza horrek izakiaren dimentsio guztiak izan behar ditu bere baitan: adimena, gorputza, afektibitatea, memoria, bizipenak, dimentsio soziala, barnetasuna.

Gizarte- eta hezkuntza-ikuspegian, errealitatetik abiatzeak ezaugarriak, beharrak, interesak, arazoak, bizi-esperientziak, aukerak eta mugak eta subjektuak bizi diren testuinguru sozioekonomikoaren eta kulturalaren ezaugarriak ezagutzea dakar berekin, baita ikaskuntzen edukiak berrikustea ere; hori guztia, aurretik ditugun esperientziak eta ezagutzak gehituta, eta modu esanguratsuan eta inklusiboan azalduta.

Gizarte- eta hezkuntza-mugimendu bat eraikitzea serioski pentsatzeak, gaur egun, alde hauek sendotzeko urratsak ematea eskatzen du:

- gizakiaren eta giza komunitatearen zentraltasuna
- giza solidaritateari, justiziari eta berdintasunari lehentasuna emango dion proiektu etiko-politiko batek

dinamizatutako herritartasuna gauzatzea

- eraldatzen eta konprometitzen duen espiritualtasunak bideratutako eguneroko bizitza

- pertsonen – gizartearen duintasunaren antolakuntza berria; hezkuntza – gizartea; demokrazia – boterea zerbitzua; giza eskubideak – garapen jasangarria – askatasuna; horiek guztiak antolatzea

- parte-hartze soziala, diziplina arteko elkarriketa eta aldaketarako ikerkuntza – berrikuntza

- etengabeko prestakuntza eta eguneraketa

- teknologia berrien ezagutzak eta ikaskuntzak zentzu kritikoarekin sendotzea

Gizatiartzen eta eraldatzen duen gizarte- eta hezkuntza-ikuspegi batek pertsonen eta bizi diren komunitateen oinarritzko eskubideak onartzearekin eta praktikan jartzearekin erlazonatutako herritartasunerako hezten du; baita bizitzaren zaintzan, beste pertsonetikiko begirunean, norberaren duintasuna onartzean, guztion eskubideberdintasunean, kultura- eta erlijio-aniztasuna aitortzean, eta esparru politikoan eta eguneroko bizitzan egitura demokratikoa sendotzean oinarritutako bizimodurako ere. Prozesu horietan tartean sartuta dauden subjektuen arteko prozesuak eta komunikazio horizontala zaintzea oso garrantzitsua da.

2.2.4 GHGH alor poliedriko bihurtzen duten beste ikuspegi batzuk.


Garapena giza eskubideak guztiz edukitzeko egoera da, gaur egungoa eta etorkizuneko; bizitza, eta bere zaintza, erdigunean jartzen dituen antolakuntza politiko, sozial eta ekonomikoan oinarritutakoa. Aniztasuna aberastasun gisa ulertzen da, eta erantzunkidetasunean eta elkarriketan oinarritutako herritarren parte-hartze antolatua berriz, pertsona guztiok, eragiten diguten erabakiak hartzeko, parte hartu dezakegun modua bezala.

Ikuspuntu horretatik, Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza proposamen pedagogiko konplexua da; jarrera politikoa, eraikuntza kontzeptuala eta gizartearen proposamen eraldatzaileen

tresna metodologikoak bere baitan dituen. Baloreen heziketaren eredu historikoez gain, ezinbestekoa da Hegoaldeko hezkuntza-komunitateen era askotako ekarpen aberatsak aintzat hartzea, batez ere latinoamerikarrak, punta-puntakoak baitira hezkuntza herrikoari eta herritartasunerako hezkuntzari dagokienez.

Horrela, GHGHren eremu poliedrikoa osatzen duten ikuspegi batzuek izen bereziak dituzte: Bake-ikuspegiak, Interkulturalitatea, Ekologikoa, Baterako hezkuntza, Afektibo-Emozionala, Sistemikoa, Herrikoia, Herritartasunerako, Samurtasunerako...

Ikuspegi horiez gain, proposatzen dugun eredu globalak alde berriak hartzeko prest egon behar du, errealitatea paradigma berriekin begiratzen ikasten goazen heinean. Koherentzia eskatuko diguten prozesu biziak sortu beharko ditugu eta besteak beste, proposamenak, helburuak, baloreak, kontzeptuak, metodoak, hitzak, emozioak, ametsak, iritziak, eta beren artean sortzen diren gatazkak konpontzeko moduak etengabe berrikusarazi beharko ditugu.



2.3. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) HELBURUAK

GHren eboluzioa ikustean aipatu dugun bezala, gaur egun 4. eta 5. belaunaldia sakontzen duten proposamenak sustatzen ari dira. Hau da, herritartasun globalaren bidez garapen gizatiarrerako eta jasangarrirako hezkuntza-prozesuak benetan ezartzen; hori guztia, Garapenerako Hezkuntzaren egungo egoeraz mintzo garela, aurrerantzean Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH) deituko dugun horretan integratuta, GKEen kontsentsuak bost belaunaldietatik berreskuratu duena barne.

Zentzu horretan, GHGHren **funtsezko printzipioak** aztertzen ari garen zenbait ikuspegitan oinarritutako baloreen heziketaren berezkoak dira: giza eskubideen ikuspegia, generoarena, kultura-artekoa, inklusiboa, ekologikoa, holistikoa, afektibo-emozionala, sistemikoa... Ikuspegi horiek hezkuntza formaleko programei ezartzean garapen gizatiarrerako eta jasangarrirako, eta herritartasun globalerako hezkuntzaren berariazko helburuak eta edukiak curriculumaren aldetik garatzen dira.

GHGHren **helburu orokor** gisa zera sortzea pentsatu du Garapenerako Gobernuak Kanpoko Erakundeen koordinadorak (CONGDE)¹³: herritartasun aktiboa, trebea, gai kolektiboekin kezkatua, eta prozesu sozialen eta politikoen garapenean bere protagonismoa aldarrikatzen duena. Planteamendu horrek hainbat hezkuntza-proposamen izan behar ditu bere baitan (besteak beste, garapenerako, bakerako,

ingurumenerako, multikulturalitaterako, generorako eta giza eskubideetarako hezkuntza) eta funtsezko bi zutabetan oinarritu: kognitiboa (errealitatea ezagutzea posible egiten du, hau da, gertatzen ari dena aztertzea, arrazoitzea) eta morala (baloreak eta bertuteak, lortu nahi den helburuarekin koherenteak diren jarrerak eta portaerak). Horretarako, ezagutza ezinbestekoa da, baina bera bakarrik ez da nahikoa, etika bat behar du.

Berariazko helburuek herritartasun globalerako garapen-kontzeptu horren berrietasunak bere baitan dituzte. Besteak beste:

- geure bizitzen eta munduko beste tokietako pertsonen bizitzaren arteko erlazioen *ulermena erraztea*
- Iparreko nahiz Hegoaldeko indar ekonomikoen, sozialen eta politikoen, eta beren erlazioen, *ezagutza handitzea*; besteak beste, txirotasuna, desberdintasuna eta zapalkuntza azaltzen eta eragiten dituzten indar-erlazioena
- pertsonen autoestimua hazten duten *baloreak, jarrerak eta trebetasunak garatzea*, beren ekintzen erantzuleagoak izateko gaituz
- *parte hartzea bultzatzea* baliabideak, ondasunak eta boterea zuzentasunez banatuta egongo diren mundu bidezkoagoa lortzeko aldaketa-proposamenetan.
- errealitatearen alderdirik ezkorrenak

¹³ CONGDEak helburu orokorreki eta zehatzei buruz duen jarreraren gainean ari gara (Op. Cit.).

eraldatzeko aukera emango dieten ezagutzeekin, baliabideekin eta tresnekin hornitzea pertsonak eta kolektiboak

- gizabanako-, komunitate-, toki- eta nazioarte-mailan *garapen gizatiar eta iraunkorra* sustatzea.
- hurbileko eta urruneko errealitatea modu kritikoan aztertzeke gai izango diren *kontzientzia kritikoak* sortzea
- *persona bakoitza arduratsu eta aktibo egitea (engaiatua)* gizarte zibil berria eraikitzeke, Iparrean nahiz Hegoan; erabaki

politikoak, ekonomikoak eta sozialak hartzerakoan gizarte horren eskariak, beharrak, kezak eta analisiak kontuan izango dira

- *elkarrekiko solidaritatearen kultura sustatzea*, hori erantzunkidetasun bezala ulertuta (garapenean guztiok gaude sartuta, jadanik ez dago mugarik ez distantzia geografikorik)
- *Hegoak Iparrari egiten dion ekarpena gogoan izan eta baztertuak egiten dugun lan intelektualaren eta etikoaren protagonista bezala kokatu.*

2.4. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) GAITASUNAK

Ikasketa “formalak” eguneroko bizitzarekin lotzeko beharrak gaitasunetan oinarritutako hezkuntza-erreformak sartzera eraman gaitu. Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzak, benetan herritar kritikoak eta sistemikoak izateko prestatuko duen prozesua izan nahi badu, hiru alde hauek posible egingo dituen gaitasun-esparrua izan behar du:

- pertsona bakoitza bere komunitateko eta munduko herritar bezala kokatzen duen gaitasun-giltzarriak lortzea
- ikaskuntzaren eta bizitzaren artean benetako lotura posible egingo duten oinarritzko gaitasunak garatzea
- gaitasunen testuingurua bultzatzeko hezkuntzako langileak trebatzea.

Herritartasun aktiboa gauzatzeko eta bizitzan zehar etengabeko ikaskuntza garatzeko gai izateko, asko hitz egin da *gizarte- eta herritartasun-gaitasunaren*, eta Garapenerako eta Herritartasun Globalaren Hezkuntzaren artean dagoen paralelotasunaz LOEn¹⁴ (Hezkuntzarako Lege Organikoan) gutxienezko irakaskuntzak eta oinarritzko gaitasunak ezarri zirenez geroztik. Ez dago zalantzarik GHGHk ahalmen handia duela gaitasun hori zabaltzeko, bere ikuspegia ezarriz eta urte hauetako esperientziaz baliatuz.

Hala ere, GHGHk oinarritzko gaitasunak ezartzeari egindako ekarpen bakarra gizarte- eta herritartasun-gaitasuna garatzea dela pentsatzea, oker egotea da. Izatez, oinarritzko gaitasun guztiek harreman zuzena dute GHGHrekin, beren

¹⁴ Cf. Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa. 2006ko maiatzaren 4ko 106 zk. duen BOEa hemen: http://www.madrid.org/dat_capital/loe/pdf/loe_boe.pdf

ikuspegiek hezkuntza-errealitatearen alderdi guztiak hartzen baitituzte. Hain zuzen ere, aurreko taulan ezarri ahal izan den bezala, Garapenerako Hezkuntzak garatzen dituen Herritartasun Globalerako¹⁵ gaitasun giltzarriak oso erraz erlazionatzen dira oinarrizko gaitasunekin (kontuan izan beharreko hutsune garrantzitsuak dituzten arren horiek).

Eta noski, ezin dira ikasleengan gaitasunak garatu, hezitzaileek eta inplikaturako gizarte-eragileek ikaskuntza-egoerak sortzeko beharrezko dituzten lanbide-gaitasunak bereganatzen ez badituzte. Kulturetako, politiketako eta hezkuntza-jarduteetako ikuspegi-aldaketa lortzetik oso urrun dago, baina funtsezkoa da GHGH sartzeara posible egingo duen benetako metodologia globalizatzaileerako.

GAITASUNEN DIMENTSIOAK	HERRITARTASUNERAKO GAITASUN GILTZARRIAK (GHGH)	ONARRIZKO GAITASUNAK	HEZITZAILEEN LANBIDE-GAITASUNAK
IZAN ETA MAITATU	Norberaren gaitasunak: - Autoezagutza - Emozionala eta afektiboa - Etikoa eta espirituala	Autonomia i iniciativa personal	Elaborar i fer evolucionar dispositius de diferenciació
			Conèixer(-se) i augmentar la resiliència
			Afrontar els deures i els dilemes ètics de la professió
LOTZEA ETA HARREMANAK IZATEA	Gaitasun sozialak: - Erabakiak hartzeko eta parte hartzeko - Gatazkak kudeatzeko	Competència social i ciutadana	Implicar i implicar-se en xarxes i comunitats d'aprenentatge
			Treballar en equip i de forma cooperativa
EGITEN JAKITEA	Gaitasun instrumentalak: - Komunikaziozkoak eta dialogikoak - Arazoak konpontzeko eta gatazkak kudeatzeko. - Metakognitiboak	Comunicació lingüística	Afavorir la interacció i la capacitat dialògica
		Tractament de la informació i competència digital.	Utilitzar críticament les TIC i les TAC (Tecnologies de l'Aprenentatge i el Coneixement)
		Competència Matemàtica (i de resolució de problemes).	Implicar als estudiants en els problemes de la vida quotidiana.
		Competència per aprendre a aprendre	Organitzar la pròpia formació contínua
JAKITEA	Gaitasun kognitiboak: - Kritikoa eta sortzailea - Parte-hartzailea	Competència en el coneixement i la interacció amb el món físic	Analitzar la realitat de forma complexa
		Competència cultural i artística	Organitzar i animar situacions i projectes d'aprenentatge i que integrin la diversitat

¹⁵ Cf. Morillas, M.D. (2006): *Competencias para la Ciudadanía: Reflexión, decisión y acción*. Narcea-MEC. Madril.

2.5. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) EDUKIAK

Proposatutako helburuekin eta garatu nahi diren gaitasunekin koherentzian ondorengo edukiak azaltzen ditugu, Espainiar Lankidetzaren Garatzeko Hezkuntza estrategiatik ondorioztatzen diren edukiak abiatuta¹⁶, eta geure ekarpenekin eta beste erakunde batzuetakoekin osatuta; jakinda, nolanahi ere, edukiaren proposamen hori bere baitan ez dela agortzen, baizik eta beste eduki askorekin osatu daitekeela, eta osatu behar dela, curriculumaren ikuspegi sistemiko batetik:

- globalizazioa eta elkarrekiko mendekotasuna
- justizia soziala eta garapena
- aniztasuna eta barnean hartzea
- kultura, kulturak eta kultura-artekotasuna
- giza eskubideak

- generoa eta baterako hezkuntza
- bakea eta gatazkak
- pentsamendu kritikorako eta sortzailerako trebetasunak
- bizimodu eta kontsumo jasagarriak
- parte-hartzea eta demokrazia
- nortasuna, nortasunak eta herritartasun globala
- ardura soziala, pertsonala eta korporatiboa
- sare sozialak eta aldaketarako hezkuntza
- elkarrekintza, komunikazio-trebetasunak eta lan kooperatiboa
- gizarte- eta afektibitate-hezkuntza eta emozio-adimenak integratzea
- etika, espiritualitasuna eta balore solidarioak.



ARGAZKIA INTERER

¹⁶ AEICD. Op. Cit

2.6. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAREN (GHGH) METODOLOGIA

Garapenerako Hezkuntzak funtsezko lau arlo hartzen ditu –sentsibilizazioa, trebakuntza, ikerketa eta eragin politikoa–, aldi berean, GHGHren esku hartze didaktikoa eratzten duten lau hezkuntza-dimentsioekin bat datozenak. Hezkuntza prozesuan zehar batzuk edo besteak azpimarratzen dira, intentsitate desberdinez, adinaren, beharren eta lanean gabiltzan ikasleen eboluzioaren arabera.

- **Sentsibilizazioa:** pedagogia konstruktibistan oinarritzen da eta epe motzean egindako ekintzak aipatzen ditu; helburu nagusia lotura afektibo-emozionala eragitea da, ondorengo ikaskuntza esanguratsua izatea lortzeko. Paradigmaz aldatzera eta errealtatea ulertzeko modua aldatzera behartzen duen nolabaiteko ezinegon-maila sortzen du, eta horrekin munduarekiko erlazio-jokaerak aldatzera behartzen da, sortutako ezinegona baretzeko.

- **Trebakuntza:** epe ertainerako eta luzerako estrategia da. Bertan (bere izenak adierazten duen bezala) errealtatea ulertzeko modu berri bati forma eman zaio, sentsibilizazioan sortu den paradigma-aldaketatik abiatuta. Forma berri hori ez da soilik buruz lantzen, aldiz, gizakiaren arlo guztiei heltzen zaie: baita gorputzarenari, emozionalari eta espiritulari ere. Horregatik ditu bere baitan kontzeptuak, gaitasunak, trebetasunak eta baloreak. Ikasleek trebakuntza-prozesu jarraitua izaten laguntzeko, ez da komeni munduaren ulermena guztiz ixtea, beti utzi behar da ikasitakoa zalantzan jartzeko aukera (sentsibilizazio berriaren bidez), munduaren ulermena zabaldu dadin

etengabeko trebakuntza-hausnarketa-ekintza ziklo batean.

- **Ikerketa:** behar adinako motibazioa eta sentsibilizazioa lortu badira, GHGH prozesu batean parte hartzen duen pertsonak errealtatea berrulertzeko eta haren aurrean kokatzeko nahia sentituko du, ume- nahiz heldu-garaian. Paradigma horren zati bat, ikusi dugun moduan, kanpoko trebakuntzak emango dio, baina beste zati bat ikerketaren bidez lortu beharko du. Hezitzaile bezala, ikerketa-ekintza-hausnarketa prozesuak aukera ematen digu gure ekintza oinarritzeko, geure ikaskuntzan eboluzionatzeko eta hezkuntza-komunitateko gainerakoekin ikerketen emaitzak partekatzeko.

- **Eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa:** Aurreko urratsen ondorioz sortutako emaitza da, izan ere, errealtatearen alderdi batekin sentsibilizatu den pertsonak, ulertzeko trebatu eta ikertu duenak, jarrera eta portaera berrieekin erantzuten du. Bestela, berak jasan beharko ditu munduarekiko erlazioaren eta ulertzeko moduaren arteko koherentzia faltaren ondorioak.

Arlo horiek bata bestearen atzetik aurkeztu baditugu ere, izatez paraleloan garatzen dira. Beraz, prozesuaren ondorio gisa adierazi ditugun konpromisoa eta gizarte-mobilizazioa prestakuntza-tresna oso eraginkorrak dira aldi berean. Era berean, ikerketak ikasitakoa sendotzen edo birbideratzen duen sentsibilizazioa dakar berekin. Eta gauza bera arlo guztiekin.

Hezkuntza osoa den GHGHk ikaskuntza holistikoa eskatzen du; hau da, pertsonaren, munduaren eta beren arteko konexioen dimentsio guztiak kontuan hartuko dituen. Hori dela eta, diziplina arteko ikuspegia proposatzen dugu, zeharkako integrazioa bultzatuko duena eskola-curriculumeko aldi guztietako ikasgai guztietan. Horietan, metodologiek tokikoa globalarekin erlazionatzea komeni da; lehenaldiaren, orainaldiaren eta etorkizunaren arteko loturetan behin eta berriz ekitea; ulermen globala, pertsonaren trebakuntza eta ekintza parte-hartzailearako konpromisoa sustatzea; eta, azken finean, globalki pentsatu eta tokian aritzeko prestatzea.

GGKEen¹⁷ Espainiako Koordinakundearen jarreratik ulertzen den moduan, eta jadanik adierazi dugun bezala, GHGHk lan intelektuala eskatzen du; baina ezagutza bera bakarrik ez da nahikoa, etika bat eskatzen du. Horregatik, erabiliko den metodologiak hau izan behar du bere baitan:

- **Alderdi kognitiboa edo intelektuala:** gertaera zehatzen ezagutza, azterketa eta analisia. Egoera desberdinen ulermen handiagoa bermatzeko gertaerek tokiko egoerekin erlazionatuta egon behar dute, eta horiek, era berean, bere testuinguru globalaren barruan egon behar dute ezinbestean.
- **Alderdi etikoa:** ongi ulertutako solidaritate-jarrera eskuratzea, justiziarekiko eta giza duintasunarekiko etengabeko arretarekin. GHGH gizabanakoen eta kolektiboen portaerak aldatzeko gonbidapena da, eta zera ohartarazten digu: batetik, gure erabakiek gure bizitzengan eragina dutela, baina baita besteengana ere; eta bestetik, herritarrok

mundu honetako garapen solidarioan eragiteko boterea eta gaitasuna dauzkagula eta arduraz erabili behar ditugula.

- **Alderdi aktiboa:** ekintza munduaren ezagutzaren ondorioa da. Bertan gertatzen dena ulertuta, arrazoiak eta ondorioak barne, eta guztien onaren eta justizia sozialaren alde egiten duen jarrera solidarioa hartuta. Horrekin guztiarekin ekintza konprometitua burutzen da, alderdi etikoarekin eta kognitiboarekin koherentea.

Proiektu bakoitzak, eskola bakoitzak, ikasgai bakoitzak berariazko metodologia-estrategiak ditu eta hezitzaile bakoitzak aplikatzeko bere modua dauka. Ia metodo guztiak integra daitezke modu eraikitzailean GHGHren prozesuetan, alderdi espezifiko bat gehituta. Beharbada, ikasitakoaren eta irakasteko moduaren arteko koherentzia izango da ezinbesteko baldintza bakarra.

Zentzu horretan, gaur egungo GHGH prozesuek espainiar eskolaren berezko alderdi pedagogikoak mantentzen dituzte 80. hamarkadatik: ikuspuntu soziokonstruktibistak, elkarriketa sustatzen duten metodologia parte-hartzaileak, sortzaileak eta aktiboak, autonomiari begirunea, komunikazio enpatikoa, proiektu kolektiboetan sartzeta...

Apur bat gehiago zehaztuz, arrazoi dialogikoan, desberdintasunarekiko begirunean eta bestetasun-printzipioan oinarritzen diren estrategia didaktikoak nabarmendu ditzakegu. Hauek:

- **arazoak** eta arrazoiak azaltzen dituztenak;
- **diskurtso ekonomikoan**, sozialen, zientifikoan, politikoan, kulturalen eta etikoan interesak, kontraesanak eta gatazkak erakusten dituztenak.

¹⁷ Cf. Op. Cit.

● **gizabanakoaren** tokiaren eta nazioartearen dimentsiotik giza garapen iraunkorra sustatzeko konpromisoa eta ekintza bilatzen dituztenak.

● **tokikoa globalarekin erlazioanatu**, eta lehenaldiaren, orainaren eta etorkizunaren arteko loturetan behin eta berriz ekiten dutenak. Globalki pentsatzeko eta tokian aritzeko prestatzen dutenak.

● **ulermen globala**, pertsonaren trebakuntza eta ekintza parte-hartzaileak konpromisoa sustatzen dituztenak.

Herritartasun Globalerako Hezkuntzak bi berritasun zehatz gehitzen dizkie metodologia horiei. Lehen, herritartasun aktiboan eta engaiatua jardutea, ez helburu gisa soilik, eguneroko zereginetara gehitzeko bitarteko bezala baizik; azken finean, ulertzeko eta inguruko errealitatea (eta osotasunean, mundua) nolakoa den ikasteko. Horretarako, tokiko lana egitearen printzipioa azpimarratzen da solidaritate-testuinguru globalaren barruan. Testuinguru globalaren erreferentziarik gabe, txirotasunaren arazoaren arrazoen (bazterketa) eta irtenbideen (barnean hartzea) benetako ikuspegia galtzeko arriskua daukagu. Tokiko ikuspuntutik gabe konpromisorik gabeko ikusleak baino ez ginateke. Pertsona aktiboa eta arduratsua izateko beharrezkoa da xedea lortzeko, jardute parte-hartzaileak, eta trebetasun kooperatiboak eta demokratikoak sustatuko dituzten esperientziak bere baitan hartzea. Sorkuntza eta sareen erabilera da beste berritasuna. Pertsonen, ideien, esperientzien eta baliabideen trukerako aritu daitezke, baina baita garapenaren aldeko elkartasun berriak bilatzeko ere, ekintza komunetarako berdintasunaren eta justiziaren alde engaiatzeko prest dauden

munduko herritarren artean (hezitzaileak, ikasleak, ikertzaileak...). Alderdi hori, gainera, bat dator Milurtekorako Garapen Helburuekin: “Garapenerako mundu mailako elkarte bat bultzatzea”.¹⁸

Adimen anizkunen teoria¹⁹ eta bere definizioa aintzat hartzen baditugu “*kultura batean edo gehiagotan baliotsuak izan daitezkeen arazoak konpontzeko edo produktuak egiteko gaitasuna*”, garrantzitsua da erabiliko ditugun metodoek adimen anizkunak garatzea eta ezartzea; gutxienez: hizkuntzarena, logiko-matematikoa, espaziala, musikarena, zinetikoa gorputzarena, pertsonaren barrukoa, pertsonen artekoa eta naturalista.

FONGDCAMen²⁰ jarrera jarraituz, globalki pentsatzeko moduak garatzen dituzten metodologiak sustatu nahi ditugu, hauen integratzaile direnak:

- **kausa-pentsamendua**: arazo baten jatorria edo kausa zehazteko gaitasuna
- **pentsamendu alternatiboa**: arazo zehatz batentzat irtenbide-kopuru handiena imajinatze gaitasuna
- **ondorio-pentsamendua**: gure jarrerren, portaeren eta erabakien ondorioak ikusteko gaitasuna
- **ikuspuntu-pentsamendua**: bestearen azalean, bere munduan eta gauzak ikusteko bere moduan jartzeko gaitasuna
- **bitartekoen-helburuen pentsamendua**: geure buruari helburuak jartzeko eta horiek lortzeko ditugun baliabideak antolatze gaitasuna.

¹⁸ NBE (2000): *Objetivos de Desarrollo del Milenio*. In: <http://www.unep.org/spanish/mdg/basics.shtml>

¹⁹ Howard Gardner-ek azaldua, Gardner, H. (1983) “*Inteligencias múltiples*” liburuan. Ed. Paidós.

²⁰ Cf. FONGDCAM (2008): Op. Cit. Spivack eta Shure-ren (1974) lanari aipamena egiten dionean

Ikusi dugun moduan, mota askotako metodo askok bideratu gaitzakete GHGHren helburuak lortzera. Kasu batzuetan herritarren parte-hartzea hezkuntza-baliabide bezala barnean hartzea eraginkorra da, hauek aipa ditzakegu:

- proiektuka ikastea
- kasuen analisia
- arazoetan oinarritutako ikaskuntza
- zerbitzu-ikaskuntza
- hurbileko ingurunea eta bertako eskuhartze-proiektuak ezagutzea
- “Ikaskuntza-komunitateak” eraikitzea
- ikaskuntza kooperatiboa eta berdinen arteko beste ikaskuntza-mota batzuk.

GHGHren berariazko hezkuntza-programetan arrakastatsuak izaten ari diren metodo batzuk zehazteko asmoz, IEPSek²¹ proposatutako zerrenda hau aipatuko dugu:

• **Garapen pertsonaleko prozesuak. Hauen gisako tresnekin:**

- banakako lan-egitasmoak
- ikaskuntza-kontratuak
- baloreak argitzeko metodologiak
- erabakiak hartzeko metodologiak
- ikasten ikasteko metodologiak
- adimen emozionalak garatzeko metodologiak

• **Berdinen arteko ikaskuntza. Hauen gisako tresnekin:**

- berdinen arteko tutoretza
- lankidetzako lana
- elkarlaneko lana
- parte-hartzerako metodologiak: eztabaidak, batzarrak, eztabaida-taldeak...

• **Testuinguruarekin elkarrekintza. Hauen gisako tresnekin:**

• testuinguru ezagutzeko: irteerak, bidaiak, ikustaldiak, prentsa, elkarriketak...

• testuinguruan esku hartzeko: ikaskuntza-zerbitzua proiektuak, boluntariotza, kanpainak, erakusketak...

• ikaskuntza-komunitateak garatzea: familiek esku hartzea, beste organizazioetan/en eta erakundeetan/en esku hartzea...

• ikaskuntza-sareak sortzea edo horietan parte hartzea

• kultura arloko trukeak

• **Antolakuntza eta giroa ikasgelan/ ikastetxean**

• ikaskuntza-espazioak girotzea eta antolatzea

• ordutegi eta talde heterogeneo malguak

• gatazkak kudeatzeko eta bitartekotza egiteko metodologiak

• ikerketa- eta ekintza-taldeen metodologia dialogikoak

• **Curriculum globala/gaitasunezkoa garatzea. Hauen gisako tresnekin:**

• proiektuka ikastea

• arazoetan oinarritutako ikaskuntza

• kasuen analisia

• informazioaren analisi kritikoa

• IKTn eta multimedia-gailuen erabilera interaktiboak ikaskuntza-prozesuetan

• eleaniztasunaren eta kultura-artekotasunaren proiektuak

• sormena garatzeko metodologiak

• simulazio-jokoak, rol-jokoak...

• prozesuen ebaluazioa: albuma, izenpekoak, ikasgelako egunerokoa...

²¹ IEPSeko (Instituto de Estudios Pedagógicos Somosaguas) Lola Morillasek eta Tusta Aguilarek egina.

2.7. GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA (GHGH) IKASTETXE BATEAN EZARTZEA

2.7.1. GHGHren papera hezkuntza-sistema formalean

Indarrean dagoen hezkuntza-legedian ez da Garapenerako Hezkuntzaren aipamen zuzenik egiten. Dena den, bere elementu asko aurki ditzakegu beste atal batzuetan edo terminologia desberdinarekin. LOEren hitzaurrean bertan elementu horiei dagozkien hezkuntzaren helburuak aurki ditzakegu:

- ikasleen nortasuna eraikitzea eta beren gaitasunak garatzea, besteak beste, errealitatea ulertzeko gaitasuna
- bizikidetzaren demokratikoa eta desberdintasunetikiko begirunea sustatzea, helburua gizarte-kohesioa izanda.
- gizarte aurreratuak, dinamikoak eta bidezkoak eratzeke ezinbestekoa den herritartasun demokratikoa, arduratsua, askea eta kritikoa gauzatzea
- funtsezko eskubideen eta askatasunen begirunean hezteak, baita gizonen eta emakumeen arteko benetako aukeraberberdintasunean, eta afektibitatearen eta sexualitatearen aniztasunean ere. Aniztasunari arretak jarzea barne hartzearen printzipiotik proposatzen da

Hezkuntza-sistemaren helburuen artean GHGHrekin zuzenean erlazioz atutako bi sartzen dira:

- bakerako hezteak, giza eskubideekiko begirunea, gizarte-kohesioa, herrien arteko lankidetzak eta solidaritatea, eta izaki bizidunetikiko, ingurumenetikiko

eta garapen jasagarriarekiko begirunea sustatuko dituzten baloreak eskuratzea

- jarrera kritiko eta arduratsuekin, eta ezagutzaren gizartearen egoera aldakorretara egokitzeke gaitasunarekin, herritartasuna gauzatzea, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturealean aktiboki parte hartzea.

GHGHrekin ere harremana dute legearen oinarritzko hiru printzipiok:

- kalitatezko hezkuntza guztientzat
- hezkuntza-komunitate osoak parte hartzea hezkuntzan
- ikaskuntza irekia eraikitzea, ikasten ikastea dakarrena

Curriculumak zehaztean jadanik aipatu dugu GHGH hezkuntza osoa eta globala dela, pertsonaren dimentsio guztiak biltzen dituenak, beraz, baita ikaskuntzaren hainbat dimentsio ere: kognitiboa, prozedurazkoa eta jarrerazkoa. Horregatik, curriculumaren garapenari diziplina arteko ikuspuntutik heltzen zaio, ikasgai guztietako curriculumak aldi, ziklo eta ikasturte guztietan sartuz. Testuinguru horretan, onartzen dugu, Herritartasunerako Hezkuntza ikasgaiari, eta gizarte- eta oinarritzko herritar-gaitasunari esker arreta berezia jarri ahal zaiola GHGHren garapenari. Hala ere, akatsa litzateke horietara murriztea, ezagutza eta gaitasun guztiak besteak bezain ezinbestekoak baitira herritartasun hori eraikitzeke.

2.7.2. Prozesuak eta egiturak ikastetxeetan:

LOErako aipatu dugun gauza bera gertatzen da ikastetxeetan: Garapenerako Hezkuntzaren aipamen zehatzik edo Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuen, Urteko Programazioen, Tutoretza Planen, Harrera Planen, Aniztasunaren Arreta Planen eta Bizikidetzaren Planen azterketa sakonik, gutxitan aurkitzen den arren, GHGHren osagai asko aurki ditzakegu; sarritan beste izen batzuekin edo beste erreferentzia-esparru batzuetan.

Ikastetxeen errealitate horren gainean, eta bertan jadanik egiten ari dena maximora baliatuz, ikastetxean GHGH osorik sartzeko prozesua proposatzen dugu; hezkuntza-komunitate osoak parte hartuko luke bertan, bertako talde bakoitzaren gaitasunen arabera. Prozesu hori ez da lortzen irakasleen lan-kopurua eta zereginak handituta, lehendik ere handia baita, jadanik egiten ari den lana bideratuko duten ikuspegi berriak eskuratuta baizik; hau da beharrezko aldaketak eginez, baina ez jarduerak biderkatuz.

GHGHk ezartzeko prozesuak antolaketa-egituren, identifikatzen duen kulturaren eta ikastetxean egiten diren jarduteen azterketa sakona, zintzoa eta benetakoa eskatzen du. Azterketa horrek hainbat puntu sendo eta puntu ahul agerraraziko ditu. Lehenengoak moldatuz eta bigarrenengoak sendotuz aldaketaren prozesu parte-hartzaileak sustatu daitezke, eta horiekin posible izango da GHGH ikastetxean ikuspuntu global bezala benetan integratzea, bai Haur hezkuntzan, bai Lehen edo Bigarren hezkuntzan.

Integrazio hori diziplina arteko programazioetan gauzatzen da; curriculumaren edukiak, tutoretzak eta beste jarduera batzuk antolatuko dituzten, eta Garapenerako Hezkuntzaren lau arloen garapena bermatuko duten programazioak (metodologiari buruz aritzean arestian

aipatu ditugunak):

- **Sentsibilizatu.** Horretarako, txirotasun-egoerari eta garapen-ezari buruzko informazioa zabaltzen da; baita egoera horren eta planetako beste leku batzuetako baliabide-ugaritasunaren artean sortzen diren loturei buruzkoa ere.

- **Hezi** Berri emateaz gain hausnarketa analitikora eta kritikora daraman. Kontzientzia hartzera darama jakinaren gaineko ahalegin kontzientea eta sistematikoa da.

- **Kontzientziatu.** Pertsonak erantzukizunarekin ahaldundu daitezten, eta beren egoera, beren mugak eta beren aukerak onar ditzaten; baita besteekin ere. Kontzientzia hartzeari esker justizia- eta solidaritate-irizpideekin ebaluatu daiteke, eta bidegabekeriei aurre eginda egoerak aldatzeko borondatea sortzen du.

- **Konprometitu.** Gizarte-eraldaketarekiko banakako konpromisoa parte-hartzearen eta mobilizazioaren bidez. Bizitza publikoan eragitera bultzatzen du.

Ezartze-prozesuan ezagutzak, oinarritzko gaitasunak, eta beste trebetasun eta balore batzuk argituta, curriculumetan kokatuko dira GHGHren aipaturiko edukiak. Oinarriko planteamendu gisa ikasgai guztiek hau bilatuko dute: inplikazio pertsonala, ekintza informatua, arrazoien eta ondorioen ulermena, eta solidaritatea, berdintasuna, barne-hartzea, lankidetzaren eta justizia soziala barneratzea.

Edukiekin batera, eta modu berean, beharrezkoa izango da egiturak finkatzea; ikasgelan eta ikastetxeko jardueratan lantzen diren teoria eta jarrerak ikastetxeko antolakuntzan eta hezkuntza-estiloan islatuko dituzten egiturak. Ez dadila alderik sortu herritartasuna gauzatzeko proposamenen eta ikastetxearen antolakuntza-errealitatearen artean. Beharrezkoa izango da beharrezko bideak ezartzea, justizia- eta solidaritate-jarduteetatik sozializazioa zuzentasunez eta iraunkortasunez nola garatzen ari den frogatzeko. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoa engaiatzea

hezkuntza sistemikoaren eta osoaren ikuspuntuan. Barrutik: zuzendaritza-taldeak, klustroa, familia-ikastetxea harremanak, norabidea. Kanporantz: auzoko elkarteak, eragile publikoak, taldeak...

2.7.3. Hezkuntza-komunitatearen ikerketa eta prestakuntza.

Ikastetxean ezarriko den Garapenerako Hezkuntza bosgarren belaunaldikoa izateko, hau da, benetan Herritartasun Globalerako izan dadin, ezinbestekoa da ikerketa- eta prestakuntza-prozesuak ezartzea; ez soilik irakasleentzat, hezkuntza-prozesuko zati diren guztientzat baizik, bai gurasoentzat bai administrazioari eta zerbitzu eta langileentzat; GHGHn gaitzeko bakoitzak behar dituen edukiekin eta sakontasunarekin.

Gaitze hori ez dator soilik kanpoko trebakuntzatik, norberaren esperientzia pertsonaletik eta kolektibotik sortzen da GHGHren ikuspegia aplikatzean. Horregatik, informazioa pilatzen hasi aurretik trebakuntza-hausnarketa-ekintza-berrikusketa prozesu jarraituak finkatu behar dira ikastetxean. Ohitura horiek ezarri ondoren (edo eskuratzearekin batera) eraginkorrak izango dira trebakuntza nahiz ikerketa. Azken hori sistematizatzeko behar-beharrezko da irakasleek eta zuzendaritza-taldeak parte hartzea; hezkuntza-jardutean eta curriculum-edukien (esplizituak nahiz ezkutuko curriculumenak) hausnarketa, esperimentazioa, ezarketa eta ebaluazioa kokatuko dituzten lan-taldeetan parte hartu beharko dute. Ahal denean, jadanik badauden bide eta egituretatik abiatzea komeni da; adibidez, ikastetxe bakoitzean jadanik badauden lan-taldeetatik.

GHren bosgarren belaunaldi honen ezaugarri espezifikoetako bat, ikerketa- eta

trebakuntza-prozesuetan eragin zuzena duena, sarean egindako lanak eta parte-hartze pluralak hartzen duten garrantzia da, besteak beste, esperientziak, ideiak, baliabideak, emaitzak trukatzeko. Horretarako, funtsezkoa da ikastetxeek eta bertako irakasleek honetan parte hartzea:

- irakasle- eta ikertzaile-sareetan; GHGHren hainbat mailatan lan egiten dutenak, maila geografikoan (tokikoa, nazionala, europarra eta nazioartekoa, Hegoaldeko herrialdeetako elkarlanari arreta berezia jarrita) nahiz akademikoan (haurrena, lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako, unibertsitatekoa, helduena, ez formala...)
- GH trukatzeko, eztabaidatzeko eta zabalatzeko jardueretan, besteak beste, kongresuen, jardunaldien, mintegien eta eztabaida-guneen bidez
- pentsamendu-, ikerketa- eta salaketa-plataformetan
- ...

Ikastetxe edo institutu bakoitzeko lan-taldeetan nahiz hainbat zentrotako irakasleek elkarrekin lan egiten duten sareetan arreta berezia jarri behar zaie bi arlo garrantzitsuri:

- GHGHren alderdi pedagogiko berezien arretari, nahiz eta izen hori ez izan, hala nola: ikuspuntu soziokonstruktibistak sustatzea, elkarriketa sustatzen duten metodologia parte-hartzaile sortzaileak eta aktiboak, autonomiari begirunea, komunikazio enpatikoa, proiektu kolektiboetan sartzeko, hezkuntza sistemikoa eta emozionala...
- ikasgai bakoitzean GHGHren ikuspegia zeharka nahiz espezifiko gehituko duten material pedagogiko espezializatuak sortzeko eta zabaltzeko. "Testu liburuak" ordez arituko diren materialak behar dira, unitate didaktikoak, ikus-entzunezko materialak, multimedia eta beste hezkuntza-baliabide batzuk.

3.1. GARAPENERAKO HEZKUNTZAREN KONTZEPTUA (GH) IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAN (IHP) SARTZEARI BURUZ

• IHPk esplizituki kontzeptu eta ikuspegi hauek ditu:

- garapenerako Hezkuntza bere Hezkuntza Proiektuko funtsezko ikuspegi bezala azaltzen du
- GH nola ulertzen duen definitzen du
- GHren definizio hori bat dator bosgarren belaunaldiarekin: Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (GHGH)
- erabiltzen den garapen-kontzeptuak garapen gizatiarra eta jasangarria gehitzen du
- genero-ikuspegia onartzen eta ezartzen du
- giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia onartzen eta ezartzen du
- gizarte- eta hezkuntza-ikuspegia onartzen eta ezartzen du
- GHGHren zati diren beste hezkuntza-ikuspegi batzuk ditu bere baitan: Bakerako Hezkuntza, Interkulturala, Ekologikoa, Baterako hezkuntzarena, Afektibo-Emozionala, Sistemikoa, Herrikoa, Herritartasunerakoa, Samurtasunerakoa...

• Ikastetxeak GH hezkuntza osoa eta globala bezala hartzen du, eta beraz:

- ez da mugatzen urteko une batzuetako eskuhartze zehatzetara, jarraitua da
- diziplina arteko ikuspuntuarekin heltzen zaion prozesua da, ikasgai guztiak hartuta eta aldi, ziklo eta ikasturte guztietan programatzen dena
- Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko prozesuetan eta ekintzetan parte hartzen du hezkuntza-

komunitate osoak: guraso-elkartek, klaustroak, ikasle-taldeek, eskolaz kanpoko jardueretako langileek, administrazio-langileek.

• Ikastetxeak IHP, eta curriculuma zehazteko beste elementu batzuk, berrikusteko eta doitzeko sistemak dauzka, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hauek egiten dituela egiaztatzeko:

- geure bizitzen eta munduko beste tokietako pertsonen bizitzen arteko harremanen ulermena errazten duela
- Iparreko nahiz Hegoaldeko indar ekonomikoen, sozialen eta politikoen, eta beren erlazioen ezagutza handitzen duela; besteak beste, txirotasuna, desberdintasuna eta zapalkuntza azaltzen eta eragiten dituzten indar-erlazioak
- pertsonen autoestimua hazten duten baloreak, jarrerak eta trebetasunak garatzen dituela, beren ekintzen erantzuleagoak izan daitezen gai egiteko
- baliabideak, ondasunak eta boterea zuzentasunez banatuta egongo diren mundu bidezkoagoa lortzeko aldaketa-proposamenetan parte hartzea bultzatzen duela
- errealitatearen alderdirik ezkorrenak eraldatzeko aukera emango dieten baliabidez eta tresnez —kognitiboak, afektiboak eta jarrerazkoak— hornitzen dituela pertsonak eta kolektiboak
- gizabanako-, komunitate-, toki- eta nazioarte-mailan garapen gizatiarra eta jasangarria sustatzen dituela.

• **Metodologiak koherenteak dira GHGHren edukiekin eta planteamenduekin. Hala:**

- ikastetxeko, zikloko eta ikasgelako urteko programazioek (IHP) metodologia holistikoak garatzen dituzte, GHGHren ikuspuntutik edukiak, trebetasunak eta baloreak biltzen dituztenak
- eragin politikoa eta gizarte-mobilizazioa curriculumaren edukiak ikasteko metodologiaren zati dira.
- GHGHrekin koherenteak diren metodologiak ikertzen, esperimentatzen eta ebaluatzen dira, curriculumen edukiak ikastea erraztuko dutenak.

• **GHGHren garapenak aurrera egiteko behar dituen hainbat elementu berrikusteko, ebaluatzeko eta egokitzeko funtzioak dituzte ikastetxeko zenbait pertsonen. Hala:**

- aldian-aldian ikastetxeko GHren eredua berrikusi eta egokitu egiten da, 4. eta 5. belaunaldiekin koherentea izango den interpretazio sakonagoa lortzeko
- IHP eta curriculuma zehazteko beste elementu batzuk doitzen dira, GHGHren berrikuntzak gehituta, baztertutako taldeetako pertsonak eta mezuak gehituta, irakasleen eta ikasleen aniztasuna kontuan izanda...
- ezagutza-arlo eta ikasgai guztiek GHGHa curriculumaren aldetik garatzen

dute eremu kognitiboan (errealitateak ezagutzeko, analisirako, arrazoitzeko...), gaitasunen eta trebetasunen eremuan, eta moralaren eremuan (baloreak eta bertuteak, jarrerak eta portaerak).

• **Ikastetxea hezkuntza-sareetako zati da:**

- ikastetxeak eta bertako irakasleek erdigune gisa parte hartzen dute, instituzionalki, GHn hainbat mailatan lan egiten duten irakasle- eta ikertzaile-sareetan; maila geografikoan (tokikoa, nazionala, europarra eta nazioartekoa, Hegoaldeko herrialdeekiko elkarlanari arreta berezia jarrita) nahiz akademikoan (haurrena, lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako, unibertsitatekoa, helduena, ez formal...))
- ikastetxea zenbait solidaritate-talderekin harremanean dago (GKEk, elkarteak, sareak, gizarte-mugimenduak...) GHren globalizazioa bultzatzeko ikastetxean
- ikastetxeko komunitateko pertsonen kontaktuekin, trukeekin, eta munduko beste toki batzuetako taldeak eta errealitateak dituzten sareekin parte hartzen dute. Adibidez, aurreko ataleko taldeen bitartez
- sareetan parte hartzearen onurak ikastetxe osoan zabaltzen dira

3.2. EGITURAK ETA PROZESUAK IKASTETXEAN

• **Ikastetxea osatzen duten hezkuntza-estiloa eta egiturak bat datoz aldarrikatzen diren teoriekin eta jarrerekin.**

• **Ikastetxeko GHren aurrerapenaren eta zabalkundearen, soil-soilik edo beste funtzio batzuekin, ardura izango duen taldea dauka ikastetxeak, eta beraz:**

- GHak ikastetxean duen aurrerapenaz, eta bere edukiei eta metodologiei buruz hausnartzen du
- alderdi kognitiboak (gertaeren ezagutza, azterketa eta analisisa)

nahiz alderdi etikoak (solidaritate eta ahalduzko arduratsuen aldeko banako portaerak, eta kolektiboak, aldatzeko gonbidapena) dituzten programak eta materialak biltzen, eskura jartzen eta zabaltzen ditu

- gai horretako berrikuntzen jakitun da
- ikastetxean bosgarren belaunaldiko GHren zabalpena bideratzen eta zaintzen du
- GHrako proiektuen ikerketa-, esperimentazio-, ezartze- eta ebaluazio-prozesuak proposatzen, dinamizatzen eta ebaluatzen ditu.

● **Ikastetxeak GHGHren hainbat arlotako heziketa-prozesu iraunkorrak ditu:**

- Ikastetxean hauek sustatzen eta ematen dira:
 - irakasleen eta zuzendaritza-taldearen parte-hartzea GHGHri buruzko heziketa-prozesuetan
 - harremanak Baliabideen eta Irakasleen Prestakuntzarako Zentroekin (BIPZ) eta GHren edukiak eta metodologiak sustatzeko Unitate Pedagogikoekin
 - besteak beste, kongresuetara, mintegietara, jardunaldiak eta tailerretara asistentzia.
- irakasleetako batzuk eta zuzendaritza-taldeek GHrekin erlazionatutako gaietan etengabeko prestakuntza-prozesuetan parte hartzen dute
- sareetan eta prestakuntza-programetan parte hartu duten pertsonen klustroan sozializatzen dituzte jasotako ikaskuntzak
- klustro osoak, aldiari aldiari, GHGHri buruzko berriak prestakuntza jasotzen du
- GHrekin erlazionatutako hezkuntza arloko ikerketa-prozesuak ezartzen dira ikastetxean
- azken finean, zentroak GHrekin erlazionatutako edukien eta prozesuen prestakuntza-hausnarketa-ekintzarako prozesu autorregulatuak dauka

● **Hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du GHGH garatzen ikuspuntu sistemikoarekin eta osoarekin. Barrutik: zuzendaritza-taldeak, klustroak, familia-ikastetxea erlazioak, norabidea. Kanporantz: auzoko elkarteak, eragile publikoak, taldeak...**

- jarduerak eta materialak egiten dira GHGH ikastetxeko eremu guztietara zabaltzeko
- bizikidetzak-espazioak (sarrera, irteera, jolas-ordutegiak, jangela...) ere ebaluatzen dira, sozializazioa zuzentasunez eta iraunkortasunez egiten dela frogatzeko; bai herritarren jarduteetatik bai justizia eta solidaritateetatik
- Guraso-elkarteak eta beste talde batzuek

ikastetxean berariaz parte hartzen dute GH globalizatzeko prozesuetan.

● **Material didaktikoei dagokionez:**

- ikasgai bakoitzean zer testuliburu edo erreferentzia bibliografiko erabiliko den erabakitzeko berrikuspen bat egiten da GHGHren hainbat ikuspegi kontuan hartuta. Azterketak egiten dira:
 - generoaren ikuspegitik
 - eskubideen oinarritutako ikuspegitik
 - gizarte- eta hezkuntza-ikuspegitik
 - ingurumenaren ikuspegitik
 - bakearen ikuspegitik
 - ikuspegi interkulturaletik
 - ikuspegi barne-hartzailetik
 - ikuspegi emozionaletik
 - ...
- ikastetxeak, curriculum aldetik estaldura hobea emateko GHGHri, testuliburuari alternatiboak diren materialak prestatzen ditu
- ikastetxean GHri buruzko nahikoa material bibliografiko eta didaktiko espezifiko dago eskura
- ikastetxeko GHri buruzko material bibliografiko eta didaktiko espezifikoak ezagutzen ditu klustroak
- irakasleek GHri buruzko material espezifikoak erabiltzen dituzte.

● **Herritarren parte-hartzea hezkuntza-baliabide gisa erabiltzen da:**

- herritarrek parte hartzeko ekintzen eta/edo ikaskuntza-zerbitzuen bitartez irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak garatzen dira
- ikastetxeak mikropolitika-ekintzetan parte hartzen bultzatzen ditu irakasleak
- ikastetxeak mikropolitika-ekintzetan parte hartzen bultzatzen ditu ikasleak
- ikastetxean burutzen diren prozesuen iritziak eta azterketa kritikoak adierazteko eta jasotzeko bideak dauka ikastetxeak

- ikastetxeak parte hartzeko bide demokratikoak dauzka erabakiak hartzeko
- ikastetxetik kanpoko egoerak eta prozesuak adierazteko eta salatze bideak ditu ikastetxeak
- gizarte konpromisoa duten ikasle-taldeak sustatzen ditu ikastetxeak, eta estaldura ematen die

- tokiko ingurunea eraldatuko duten ekintzak antolatzen ditu ikastetxeak
- maila globaleko eraldaketatan parte hartzen duten ekintzak antolatzen ditu
- *txirotasunaren eta bazterketaren aurkako borrokaren*, eta inklusioaren aldeko kanpainetan parte hartzen du ikastetxeak.

3.3. CURRICULUM PROIEKTUAK ETA PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK:

◦ **GHGHren helburuak, gaitasunak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa maila guztietako hezkuntza-curriculumetan sartzen dira. Horrek, zera dakar arlo, maila eta ikasgai guztietan:**

- GHGH zeharka integratuta egotea haur-hezkuntzako, eta lehen eta bigarren hezkuntzako curriculumetan
- GHren ezagutza kognitiboak (errealitatearen ezagutzarenak, analisiarenak, arrazoiketarenak...) eta ezagutza moralak (balore eta bertuteenak, jarrerarenak eta portaerenak) garatzen direla
- aldi bakoitzeko curriculum-proiektuetan zehazten dela GH
- GH programazioetan zehazten dela. GHGHri egiten dioten ekarpena argi agertzen dela, eta zehaztu egiten dela, programazio guztietan.

◦ **Inplikaturik dauden hainbat taldek, departamentuek eta ikasketa buruzagitzek:**

- GHGHren proiektuen curriculumaren garapenean koherentzia, diziplina-artekotasuna, progresibotasuna, jarraitutasuna eta osagarritasuna gainbegiratzen dituzte
- curriculumak egokitzen dituzte eta beharrezko edukiak gehitzen dituzte GHGHren benetako ikuspuntua osatzeko

- ezkutuko curriculumaren berrikusten eta ebaluatzen dute, ikasleek ikasten dituzten ezagutzak, jarrerak eta gizarte-praktikak bosgarren belaunaldiko GHrekin bat datozen ala ez ikusteko.

◦ **Curriculumaren helburuek eta edukiak GHren bosgarren belaunaldiari dagozkionak dituzte bere baitan; hau sustatzera bideratuta daude:**

- herritartasun globala, gizarte zibil aktiboa, gai dena, gai kolektiboekin kezkatua dagoena, eta prozesu sozialen eta politikoen garapenean bere protagonismoa aldarrikatzen duena
- dimentsio globala errealitatearen azterketan; tokikoa eta globala denaren artean loturak ezarriko dituen, eta txirotasuna gutxitzeko nazioarteko konpromisoak bere gain hartuko dituen, bere politika nazionetik edo tokikotik bereizi ezin diren konpromiso gisa
- hezkuntza ez dela neutrala onartzen duen justiziaren ikuspuntua; horrek jarrera bat eskaini dezake mundua dagoen bezala mantentzeko edo aldaketan parte hartzeko aukera egitean, horrek dakarren konplexutasun osoarekin, denentzako justiziaren alde
- eskubideetan, beharretan oinarritutako ikuspegia, herritarren oinarritzko eskubideak globalki onartuko dituen

- hezkuntza-prozesu parte-hartzaileak, aktiboak, ez autoritarioa, doktrinatzetik urruntzen direnak, autonomia sustatzen dutenak, eta parte-hartzea eta konpromisoa bultzatzen dituztenak.

◦ **Gainera, zentroan curriculumaren aldetik aintzat hartzen dira:**

- herrialde txirotuetako errealitateak
- Hegotik Iparrera egindako ekarpenak
- gizarte-egoera ahuleko taldeek eta pertsonen gai ekonomikoei, politikoei eta sozialei buruz dituzten iritziak
- gizarte-mugimendu berrien ikaskuntzak, gizarte-mobilizazioak eta konpromiso politikoa lagunduta
- munduko beste toki batzuetako ikaskuntzekin eta bizitzekin harremanak ezartzen dira
- zapalkuntzaren, txirotasunaren eta desberdintasunen (gizonen eta emakumeen artean, aberastasunaren eta boterearen banaketan) existentzia azaltzen eta eragiten dituzten indar ekonomikoak, sozialak eta politikoak ezagutarazten dira; baita arrazoiak eta

ondorioak ere

- bidegabekeriaren aurka borroka egiteko ezagutza teorikoak ematen dira

◦ **Diziplina arteko programazioak bermatu egin behar du aldi eta mailetan zehar GHren oinarritzko lau ekintzak garatzen direla: ikastetxeak sentsibilizatu, hezi, kontzientziatu eta konprometitu egiten duela.**

- curriculumek GHren laugarren eta bosgarren belaunaldien berezko gaitasunak zehazten eta garatzen dituzte
- herritartasunerako hezkuntza ikasgaia elkarrekiko dependienteagoa den munduaren globaltasun-ikuspegitik antolatzen da, eta aintzat hartzen du hainbat kulturara edo errealitatetara irekitzeak aberastu egiten duela
- curriculum-materien, tutoretzen eta beste jarduerabatzen bidez autoestimua hazten duten eta arduratsuago izateko gaitzen duten baloreak, jarrerak eta trebetasunak garatzen dira

3.4. METODOLOGIAK. PROIEKTUAK, JARDUERAK ETA ZEREGINAK:

- **IHPtik hasi eta ikasgeletako programazioetarako ikaskuntza-metodologia holistikoa hautatzen da, ezagutza-arloen arteko loturak ikastea errazten duena, gizabanakoaren, komunitateen eta munduaren artean.**

- **Curriculumaren garapenean eta ikastetxeko jardueretan erabiltzen diren teknikak eta metodologiak bat datoz *GHren ezaugarri diren alderdi pedagogikoein*; hala nola gizarte- eta hezkuntza-ikuspegia, ikuspuntu soziokonstruktibistak sustatzea, elkarriketa sustatzen duten metodologia parte-hartzaile sortzaileak eta aktiboak, autonomiari begirunea, komunikazio enpatikoa, proiektu kolektiboetan sartzeta...**

◦ **Metodologiek, edukiek inkoherenteki:**

- arrazoiak eta ondorioak ulertzea errazten dute
- inplikazio pertsonala eta ekintza informatua sustatzen dituzte
- tokikoa globalarekin erlazionatzen dute
- behin eta berriz ekiten dute lehenaldiaren, orainaren eta etorkizunaren arteko loturetan
- ulermen globala, pertsonaren heziketa eta ekintza parte-hartzaileetarako konpromisoa sustatzen dituzte
- globalki pentsatzeko eta tokian ekiteko prestatzen dute
- beste balore batzuen artean, solidaritatea, berdintasuna, barne-

hartzea, lankidetzeta eta justizia soziala garatzen dituzte

- trebetasun kooperatiboak eta demokratikoak sustatzen dituzten jardute parte-hartzaileak eta esperientzialak dituzte
- munduko beste leku batzuetan egiten denetik ikasten da

● **Metodologiek epe ertaineko prozesuak dituzte, eta horietan:**

- mikropolitika-ekintzak, justiziaren aldeko parte-hartze sozialeko ekintzak eta sentsibilizazio-ekintzak egiten dira, eta ikaskuntza-jarduera gisa erabiltzen dira
- besteak beste, komunikabide sozialen, interneten, eta prentsa idatziaren eta digitalaren erabilera kritikoa sustatzen da
- besteak beste didaktikoki erabiltzen dira, GGKEk ematen dituzten informazioak eta irudiak, sentsibilizazio-kanpainak eta eragin politikoa, herritartasunari buruzko argitalpen zehatzak eta garapena. Curriculumak garatzeko baliabide bezala erabiltzen dira material horiek, bidegabekeria mantentzen eta gizarte-aldaketa zailtzen duten prozesuen eta egituren ulermenetik.
- Begirada kritikoarekin begiratzen laguntzen da, baita baloreak, ezagutzak eta portaerak zabaltzen dituzten beste eragile batzuk aztertzen ere.

● **Metodologiek alderdi emozionalak lantzen dituzte, hau egiten duten jardueren bitartez:**

- autoestimua handitu
- justiziarekin eta gizarte-aldaketarekin erlazioen konpromisora mugiarazi
- ahalduntzea eta norberaren baieztapena sustatu, eta horrela, arduratsuago izateko gaitasuna eman
- ...

● **Ikastetxeak material pedagogiko espezializatuak erabiltzen ditu, argitaletxe komertzial handiei alternatiboak direnak.**

● **GH jarduerak antolatzen dira hezkuntza-komunitate osoarentzat, eta ez ikasleentzat soilik.**

● **Arloetako eta ikasgaietako metodologiek:**

- arazoak eta beren arrazoiak azaltzen dituzte
- diskurtso ekonomikoen, sozialen, zientifikoen, politikoen, kulturalen eta etikoaren interesak, kontraesanak eta gatazkak azaltzen dituzte
- gizabanakoaren, tokiaren eta nazioartearen dimentsiotik giza garapen iraunkorra sustatzeko konpromisoa eta ekintza bilatzen dituzte
- Politikoki, tokian eta globalki, adi egongo den herritartasuna egiten dute eta harantz bideratzen dute.
- Pentsatzeko modu globalak garatzen dituzte, bere baitan dituztenak:
 - kausa-pentsamendua, arazo baten jatorria edo kausa zehazten duena
 - pentsamendu alternatiboa, arazo zehatz baten zaka irtenbideak imajinatzen dituena
 - ondorio-pentsamendua, gure jarreraren eta portaeraren ondorioak ikusten dituena
 - ikuspuntu-pentsamendua, bestearen azalean, bere munduan eta gauzak ikusteko bere moduan jartzen gaituena
 - bitartekoen-helburuen pentsamendua, helburuak proposatzeko eta horiek lortzeko daukagun baliabideak antolatzea posible egiten duena.



ARGAZKIA INTERED

4. ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA

- AINSCOW, M. (2001): Desarrollo de escuelas inclusivas. Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares. Narcea, Madrid.
- ALCALDE, A.I. eta beste batzuk (2006): *Transformando la escuela: comunidades de aprendizaje*. Ed. Graó. Bartzelona
- BARTOLOMÉ, M. et al (2003): *¿Construimos Europa? El sentimiento de pertenencia desde una Pedagogía de la Inclusión*. Ed. Consejería de Educación. Madrilo erkidegoa.
- BOOTH, T Y AINSCOW, M. (2002): *Índice de inclusión. Desarrollando el aprendizaje y la participación en las escuelas*. Ed. UNESCO-CSIE. In: <http://www.eenet.org.uk/resources/docs/Index%20Spanish%20South%20America%20.pdf>
- BOZA, A. et al (2010): *Educación, investigación y desarrollo social*. Narcea, Madrid.
- CELORIO, G. eta LÓPEZ, A. –biltzaileak- (2007): Aktak. Garapenerako Hezkuntzari buruzko III. Kongresua. Hezkuntza eraldatzailea globalizazioaren erronken aurrean. Ed. Hegoa. In: http://publ.hegoa.efaber.net/assets/pdf2s/178/Aktak_Garapenerako_H._III._Kongresua.pdf?1309420611
- CONGDE (2004): *Educación para el Desarrollo. Una estrategia de cooperación imprescindible*. Equipo de Educación para el Desarrollo de la Coordinadora Española de ONGs para el Desarrollo. In: http://autonomicas.congde.org/documentos/54_1.pdf
- Delors, J. –koord- (1996): *La Educación encierra un tesoro*. Ed. Santillana-UNESCO. Laburpena hemen: http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF
- Fernández, A. eta Tanarro, R. (2009): La Educación Inclusiva en América Latina y el Caribe: *Abriendo caminos para una sociedad más justa*. Ed. Intered. Madrid.
- FONGDCAM (2008): *El Cuadrado de la Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global*. In: <http://fongdcam.org/wp-content/uploads/2011/03/cuadrado.pdf>
- GARDNER, H. (2001): La inteligencia reformulada. Las inteligencias múltiples en el siglo XXI. (Garis Sánchezek gaztelerara itzulita) Paidós. Bartzelona.
- LLOPIS, C (koord) (2003): *Recursos para una educación global ¿es posible otro mundo?* Narcea, Madrid.
- Llopis, C. (2005): *Educar a una mujer es educar a un pueblo*. Ed. Intered. Madrid.
- MEC (2006): Hezkuntza Lege Organikoa. 2006ko maiatzaren 4ko BOEa hemen: http://www.madrid.org/dat_capital/loe/pdf/loe_boe.pdf
- Morillas, M.D. (2006): Competencias para la Ciudadanía: *Reflexión, Decisión, Acción*. Narcea-MEC. Madrid.
- Ortega, M.L. (2007): *Estrategia de Educación para el Desarrollo de la Cooperación Española*. Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación. In: <http://www.maec.es/es/MenuPpal/CooperacionInternacional/Publicacionesydocumentacion/Documentos/DES%20Educaci%C3%B3n%20para%20el%20Desarrollo.pdf>
- TORRES, R.M. (2005): *12 Tesis para el cambio educativo - Justicia Educativa y Justicia Económica*. In: <http://www.entreculturas.org/node/390>

GARAPENERAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA (GHGH)

IKASTETXEETAN INTEGRATZEKO GIDA



LAGUNTZAREKIN BATERA:

